

ELKARRIZKETA: RICHARD STALLMAN • ESPERIENTZIA: ELGOI-
BARKO IMH-N POI EREDUA • EKARPENA: HIZKUNTZ EREDUAK •
GALDEIDAZUE: JOSE MIGUEL CASTRO • ZALDIEROA

hh
hik hasi

114

4 EURO • 2007KO URTARRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA




**Haurrak afektibitate eta
sexu aniztasunean hezten**



be g ira pe g itz

Ikusi nahi al duzu mundu berri
bat tradizioaren leihotik?
Begira, begira!



Anjel Lertxundi Joxan Ormazabal **Juan Kruz Igerabide** Miren Agur Meabe
Harkaitz Cano **Jesus Mari Olaizola "Txiliku"** Mitxel Murua **Kirmen Uribe**

Marrazkiak: Elena Odriozola

aurkibidea



8
gaia

HAURRAK AFEKTIBITATE ETA SEXU ANIZTASUNEAN HEZTEN

Arlo hori haurtzarotik lantzearen garrantziaz mintzo dira familia homoparentalak eta gay, lesbiana eta transexualen elkarte-ko kideak. Aniztasuna denok errespetatu eta bizi behar dugulako.



18
elkarrizketa

RICHARD STALLMAN

Software librearen aitzatzat hartzen den amerikar hau mundu osoan zehar software librearen filosofia eta balioak ezaguratazen dabil. Hezkuntzak eta software libreak elkarrengatik egin dezaketenaz mintzo da hemen.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HAURRAK AFEKTIBITATE ETA SEXU ANIZTASUNEAN HEZTEN

16 elkarrizketa

RICHARD STALLMAN

24 esperientzia

Eredu berri bat ikasteko: proiektuak garatzen enpresetan bezala

IMH Elgoibarko Makina Erraminta Institutua

28 ekarpena

Hizkuntz ereduak: goazen harira
Josu Sierra

32 galdeidazue

Jose Miguel Castro

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Korrika heldu da!

Elena Baraibar eta Kristina Boan

46 Atzeko atetik

Zaldieroa

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karnele Perez Urza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-XII-14). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPIZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urtarrila

Nolako irakasleak behar ditugu XXI. mendeko hasierako Euskal Herrian?



**“Pentsatu globalki, parte hartu lokalki”,
diote ekologistek.**

**“Orokorretik lokalera ez, alderantziz, loka-
letik globalera”, diote beste batzuek.**

**Garbi dago hausnarketa sakona egin behar
dela gure kulturaren aberastasuna gal ez
dadin eta gure ekarpena egin dezagun.**

“Gaur egungo eskoletan, XXI. mendean bizitzeko ikasleak prestatu behar ditugu, XX. mendean prestatutako irakasleekin, eta XIX. mendeko egitura duen hezkuntza sisteman”. Esaldi hori errepikatu zen abenduaren 15ean Donostiako Irakasle Eskolan egindako etorkizunerako irakasleen profilari buruzko hausnarketan. Ideia eta ekarpen interesgarriak egin ziren saioan zehar. Hitza hartzeko egon zen nahiak gaiak pizten duen interesa adierazten du.

XXI. mendeko jendartearen aldaketa sozialak izugarri bizkortzen ari dira; orain arteko erreferentzia puntuak galtzen doaz: erlijioa, familia...; ezagutza etengabe aldatzen ari da; egoera gero eta konplexuagoak sortzen dira; kultur berdintasunerako ahalegin nabarmena antzematen da: hizkuntzak, modak, ohiturak...; ekonomiaren desoreka eta gizarte bazterketa handituz doaz; informazio gehiegi dago, bizitza erritmoaren abiadura izugarria da...

Zer egin, ordea, eskolatik horren guztiaren aurrean?

Izugarrizko garrantzia du irakasle-en prestakuntzak, bai hasierakoak eta bai etengabeak. Zertan prestatu, baina?

Alde batetik, ikaste prozesuei buruz zientziek egin dituzten ekarpenak kontuan hartu behar dira. Adibidez, ezagutza norberak eraiki behar duela dio psikologiak; jakintzak bizitzarako baliagarria denean hartzen duela zentzua dio soziologiak; iristen zaigun informazio berria garen eta dakigunaren arabera interpretatzen dugula komunikazioak; hizkuntzen arteko interdependentzia dagoela, berriz, linguistikak...

Bestetik, hezkuntza osoa eta integrala izatea komeni da, bere inguruan integratua eta integratzailea.

Zer ondoriozta daiteke horretatik guztitik? Irakasle berriak prestatzeko, ikasgaietan oinarritu beharrean diziplinartean aritu behar dela, elkarlanean aritzea ezinbestekoa bihurtuz. Erreali-

tatearekin zerikusituz zuzena duten gaiak eta egoerak bizi behar direla. Ezagutza teorikoan oinarritutako curriculumetik kompetentzien garapenera pasa behar dela. Memoriari baino kompetentziei eman behar zaiela garrantzia: ikasten, izaten, elkarlanean aritzen, ekiten... jakiteari. Azken finean, pertsona ikertzailer, autonomo eta kritikoak izaten lagundu behar zaiela irakaslegaiari.

Hezkuntzaren xedeek gure gogoe-tatik abiatu behar dute jende askea eta kultur identitatea duena lortzeko. Hori litzateke gure herriak egin lezakeen ekarpenik ederrenetakoa.

Eta hori guztia posible al da dauzka-gun hezkuntza egitura administratiboe-kin? Garbi dago egitura horiek ezin- bestean aldatu egin behar dutela izaera, eskola komunitatearen parte-hartzea erraztuz, eskola jendartera irekiz eta eskola garaia amaitzean bizitza osoan ikasten jarraitzeko gogoia suspertuz.

Hausnarketak jarraituko du...

kronika

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetako giroa aztertu duen txostena aurkeztu du Iñigo Lamarka EAEko Arartekoak: *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan*. Ondorioak EAEko DBHko 80 ikastetxetan egindako ikerketa batetik atera dituzte. 2. mailako 1.707 ikaslek, 4. mailako 1.616 ikaslek, 2.782 familiak, 1.257 irakaslek eta 80 zuzendarik egindako elkarrizketetaz bailatu dira horretarako.

Ondorio orokor bat zera da: ikastetxeetako giroa ona dela eta ikasleak zein familiak gustura daudela. Dena dela, zenbait arazori behar bezala heltzeko premia ere ikusten da, hala nola, irakasleen autoritate falta, irakasleen eta familien arteko banaketa, irakasleen desmoralizazioa eta gogo falta eta tratu txarra eta jazarpena jasaten dutenen barkadadea.

Txostenak ikastetxeetako bizikidetza hobetzeko gomendioak ematen ditu hezkuntza administrazioarentzat, ikastetxeentzat eta bestelako gizarte eragileentzat.



Abenduaren 6an lan egin zuten hainbat ikastetxetan

Abendua jai egun askoko hilabetea da, hasiera eta amaiera aldera, bereziki: Euskararen eguna, Espainiako Konstituzio eguna, Amabirjin eguna, Gabonak... Ikastetxeetan antzematen da. Edonola ere, gero eta ikastetxe gehiago dira abenduaren 6a jai egiten ez dutenak. Ikasturte honetan, Ikasle Abertza-leak eta EHBE erakundeek, beste behin ere, egun horretan jai ez egiteko deia luzatu dute, eta gustura gelditu dira izan duten erantzunarekin. IAK jai egiteko partez herri eskolak antolatuta zuten eta 58 herritan egin ziren. 1.400 ikaslelik gora bildu ziren eskola horietan *nazio bat garelako... ikasleok jai egun arrotzei intsumisioa* lelopean. Araban 150 lagun inguru bildu ziren, Bizkaian 600dik gora, 500 inguru Gipuzkoan eta 165 inguru Nafarroan. He-

rri eskola horietan jolasak, tailerrak eta orotariko hitzaldiak egin zituzten, eta gai hauek jorratu ziren: ikasle mugimenduaren historia, Bolognako prozesua, euskal curriculum, eskola euskalduntzearen aldeko dinamika eta ikasleen eskubideak. Horrez gain, zenbait herritan manifestazioak eta elkarrerantzak ere egin ziren.

Beste 12 ikastetxe ez ziren itxi eta beste egunetan bezala egin zuten lan: HUHEZI Fakultatean, Zarauzko ikastolan, Durangoko Ibaizal ikastolan, Azpeitiko Ikasberri ikastolan, Urretxu-Zumarragako ikastolan, Aiako herri eskolan, Elgoibarko ikastolan, Ordiziako Jakintza ikastolan, Lekeitiko Resurrección Maria Azkue ikastolan, Ondarroako Zubizarren eta Markinako Bekobentan eta Laboralean. EHBek salatu duenez, beste zenbait eskola publikok gauza bera egiteko asmoa zuten, baina atzera egin zuten Hezkuntza Sailak har zitzakeen neurrien beldur.

IAK 10 urte daramatza abenduaren 6ko festa egunari uko egiten, "euskal herritarren eskubideak zapaltzen dituen egun bat delako". Zentzu horretan, hezkuntza sistema propioak egutegi propioa behar dutela aldarrikatzen dute. Egutegiak jendeak uste baino garrantzi handiago duela azpimarratzen du EHBek ere: "antolaketa jakin baten zati bat da egutegia, nazio baten antolaketa-ren eta egituraketa jakin baten zati bat".

Haurrak ezin du ikasi laguntzarik gabe maitasunerako eta pozerako ibilbidea, eta era berean, ezin die ihes egin egoismoaren eta etengabeko gatazkaren arriskuei, aurkako adibideez osatutako inguru batetik ez bada.
Paul Churchland



Iparraldeko Bigarren Hezkuntzako irakasleak greban

Abenduaren 18an greba egin zuten Iparraldeko Bigarren Hezkuntzako irakasleek Gilles de Robien Frantziako Gobernuko Hezkuntza ministroak egin nahi dituen aldaketen aurrean protesta egiteko.

Sindikatuaren esanetan, Iparraldean irakasleen heren batek egin zuen greba eta 20 ikastetxetan antzeman zen. Pauko Akademia Ikuskariak emandako datuen arabera, irakasleen %30,54 atxiki zen grebara kolegioetan, % 35,32 lizeoetan eta % 19,93 lanbide eskoletan. Oro har, irakasleen % 31.

Hezkuntza ministroak ezarri nahi duen dekretuaren bitartez, kalterako diren hainbat neurri hartuko dira, sindikatuaren iritziz: "irakasleen lan baldintzak okerragoak izanen dira, besteak beste, ordu kopurua igo egingen delako

eta gelako ikasle kopurua ere bai. Beraz, ikasteko zein lan egiteko baldintzak txarragoak izanen dira". Horrez gain, lan orduak betetzen ez dituzten irakasleek bi ikastetxetan egin beharko duten lan, eta ikastetxe berean irakasle bakar bati zenbait gai emateko ere eskatuko zaio.

Neurri horien guztien azpian helburu nagusi bat dago sindikatuen ustez: lanpostuak murriztea eta hezkuntzan gero eta diru gutxiago gastatzea. 2007ko ikasturte hasierarako estatuan 5.000 lanpostu gutxiago izatea nahi du Hezkuntza ministroak. Azken hiru urteetan 30.000 lanpostu gutxiago daude.

Hori guztia dela eta, erreforma bertan behera uzteko eskatzen dute irakasleek.

EAEn ere oraindik konpondu ezinik

Urte amaierako grebek ez dute emaitza onik eman. Bildu, bildu dira Hezkuntza Saila eta sindikatuak, baina ez dute akordiorik lortu. Beraz, lan hitzarmen kolektiboak berritu gabe jarraitzen du. Abenduaren 15eko greba deialdia bertan behar utzi zuten eta hori pozgarria zela eman zuen aditzera Hezkuntza Sailak. Edonola ere, sindikatuak urtarrilean mobilizazioetarako deia egin dute eta beste greba bat ere deituko dute. Sindikatuak idatziz egiten dituzten aldarrikapenen inguruko proposamenak entzun nahi dituzte, ez bestelakoak.

Vascuencearen legetik euskararen legera izeneko jardunaldiak egin zituen Kontseiluak Iruñean abenduaren 15ean, legeak 20 urte betetzen zituen egun berean, hain justu. Legeak ez dituela Nafarroako euskaldunen eskubideak bermatzen azpimarratu zuten, eta beraz, badela legea aldatzeko garaia.

Jardunaldietan legearen beraren balantzea egin zen, eta argi gelditu zen urte hauetan guztietan oztopoak eta arazoak sortu baino ez duela egin. Aurrera begirako urratsen gainera gogoeta ere egin zen, eta euskal hiztun guztiak babesteko moduko oinarri juridikoa behar dela azpimarratu zen; hau da, Nazio Batuen Erakundearen Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdintasunean aitortzen dituen dokumentua da.

Egun, Vascuencearen legea dokumentu horren arabera aztertzen bada, eskubide horiek etengabe urratzen direla ikus daiteke.

Hizkuntz politika indartzeko eta garatzeko hamar proposamen egin ditu Kontseiluak eta horiek gogorarazi ziren jardunaldietan, besteak beste, hezkuntza eredu sistema aldatzea, hizkuntz politikarentzat lehendakariordetza sortzea, euskararen aurrekontuak handitzea eta hedabideetan kuotak ezartzea.

GAIA

Haurrak afektibitate eta sexu aniztasunean hezten





Pertsona bakoitzak, sentitzeko, adierazteko eta bizitzeko modu propioa eta berezia du. Pertsona bakoitza bakarra eta berezia da eta beraz, bakoitza sexualitate bat dela diogu.

Erotika adierazteko moduak anitzak dira eta bakoitzak bere bizipen propioak ditu bere sexuazio prozesuan. Horrek sexualitate bakoitza berezi eta bakar egiten du.

Haur bakoitzari, aukera guztietan bizitzeko eta hezteko eskubidea izatea bermatu behar zaio.

G

Haurtzarotik aukerak mugatu gabe

Sexu aniztasuna lantzen denean, sarri modu puntualean egiten da eta gainera, haurrak nahiko koskortuta daudenean. Eta zer zentzu du nerabe-zaroen sexu aniztasunaz hitz egiteak ordu arte jaso duen guztia marko heterosexualean kokatua izan bada?

Jasotzen den eredu sexuala, koitora eta ugalketara mugatzeaz gain, sexualitate genitalizatua da. Eskolan, sexu hezkuntza egiten denean gehien lantzen diren irudiak zakilak eta aluak dira eta harreman sexualei buruz hitz egitean koitoari buruz hitz egiten da. Ikuspegi horrek, pertsonen aukerak mugatzen ditu eta ez du batere laguntzen beren garapenean, adituen ustez. Horrez gain, materiala, ipuinak, marrazkiak eta hizkuntza bera ere, heterosexistak dira. Beraz, haurrak igurikapen heterosexualean hezten ari gara.

Bestalde, kontuan hartu beharko lirateke ikasgeletan gero eta anitzagoak diren familia ereduak: guraso bakar-koak, aiton-amonek zaintzen dituzten haurrak, banandutakoak, berregitura-tuak... eta horien artean, familia homoparentalak. Ikasgelan ez bada txikitatik sexu eta afektibitate aniztasuna lantzen, zaila egingo zaie beren familia ulertzea.

Sexu hezkuntzaren helburua, emakumezkoak eta gizonezkoak zoriontsuak izateko beren gorputzak ezagutzen, onartzen, beraien sexualitatea bizitzen eta erotika propioa adierazten ikastea da. Eta horretarako, beharrezkoa da sexu aniztasunean hezte, lehen eta bigarren mailako sexualiterik ez dagoela erakutsiz. Curriculumeko gai guztietan islatu beharko litzateke aniztasuna. Eta era berean, zuzenean landu daitezke desira orientazioa, homosexualitatea eta homofobia, baina betiere aurretik marko orokorragoan landu badira. Sexu hezkuntza aniztasunaren eta generoaren ikuspegitik eskola garai guztietan egin behar da, beti dago zer egina eta zer esana.

Haurraren sexu garapena aniztasunean

Luzaroan, hurrek sexualiterik ez dutela pentsatu izan da, baina egun badakigu badutela, eta onarpen horrek, balioa ematen dio sexualitate horri. Gure sexuazio prozesua jaiotzatik heriotzaraino jarraia, dinamikoa eta aberastasunez beterikoa da eta prozesuaren lehen garaia ezagutzeak prozesu osoa hobeto ulertzen lagunduko digu. Haurdunaldian, nola sexuatu garen baldintzatzen hasten da: kromosomak, gonadak, hormonak, barne eta kanpoko genitalen garapena, nerbio sistema zentrala... Eta medikuak gurasoei haurraren sexua esaten dien unetik, haien igurikapenak martxan jartzen dira. Behin haurra jaio eta ikusi ostean, sexua esleitzen zaio. Familiak modu desberdinean ikusiko du haurra, neska edo mutila izan. Sozializazio desberdinduaren hastapenak dira, eta hori haurraren jokabideetan islatuko da. Eta horrez gain, heterosexualitate igurikapena ere jada martxan da, hau da, haurra heterosexuala dela pentsatzen da.

Ez epaitu helduen begiradarekin haurrek egiten dutena

Haurrak ez du hainbeste desberdintzen sexuala eta ez-sexuala, ez daukelako sentsazio erotikorik zurrunik, geroago egongo diren moduan. Gainera, beraientzat gorputzeko zonalde erotikoenak ez dira genitalak. Haur sexualitatea urrun dago sexualitatearen ikuspegi genitalizatutik eta ugalketarako



Haurraren sexu garapena aniztasunean

sexualitatearen ikuspuntutik. Helduek baino gutxiago desberdintzen dituzte desira erotikoak desira afektiboetatik. Beraientzat dimensio sexuala, afektiboa eta soziala oso lotuak daude. Bestalde, helduontzat jokaera erotikoak esanahi asko dituzte, konnotazio ugari: desira, ekarpena, konpromisoa, maitasuna, plazera, pasioa... Haurrentzat esanahi horiek guztiak urrun gelditzen dira. Eta helduok, sarri, haurren jokarakerak aztertzean guk sexualitatea ulertzen dugun ikuskeratik egiten dugu, eta une horretan jada erantzun bat ematen ari gara haurraren sexu hezkuntzari.

Lotura afektiboen garrantzia

Haurra atseginak eta desatseginak gidatzen du. Beraz, haurrak plazera eta lotura afektiboak izateko behar handia sentitzen du. Gizarte estimuluek erakartzen dute haurra: ukimena, giza aurpegia, ahotsa... Lotura afektiboak bizitzan zehar sexualitatearen bitartekari izango dira, baina are gehiago haurtzaroran. Sexu heziketa, atxikimendu harremana duten pertsonekin hasten da. Eta garrantzitsua da haurrak, neska eta mutil bakoitzak, bere burua ezagutzen eta onartzen ikastea, eta gai izatea bere erotika modu zorionsuan adierazten ikasteko. Gertuko pertsonekin ikasten da modu intimoan komunikatzen: lantzanak, hitz goxoak, azalaren kontaktua, eskua ematea, musuak, besarkadak... Haurrak pertsona horiekin segurtasun eta babes sentimendu positiboak biziko ditu, eta hor ikasten du haurrak maitatua izateko eskubidea duela. Sexualitate hori, bisexuala, homosexuala edo heterosexuala izango da.

Jaio eta urte t´erdira aldaketa handiak gertatzen dira haurraren bizitzan.

Gaitasun motoreak (ibili, bakarrik jan, jantzi..) eta linguistikoak eskuratzen ditu eta ondorioz autonomia maila areagotzen du. Jada gizarte arauak hautesmaten doa eta oso desberdina da arau horiek arrazoituz ikastea edo ez. Garai honetan jeloskortasunak gainditu beharko ditu, gertuko pertsonen begiko bakarra ez dela konturatuko delako. Garrantzi handia izango du atxikimendu harremana pertsona bat baino gehiagorekin izanak.

Haurraren sexu kuriositatea

Haur guztiek dute sexu kuriositatea eta horrek ikaskuntza prozesua indartzen du. Sexualitatearen inguruan hitz egin behar dugu eta kontziente izan behar dugu haurarentzat hitza esanahiez betetzen hasiko dela. Eta zein esanahi jasoko du guk zakilei, baginei eta koitoari buruz soilik hitz egiten badiogu? Afektibitatearen eta sexualitatearen inguruan hitz egin beharko diogu informazio egokia emanez. Gainera, haurren kuriositateari erantzutea ez da soilik galdera horri erantzutea. Izan ere, badakigu sarri ez dela nahi denaz galdeetzen.

Bestalde, homosexualitatea, heterosexualitatearekin batera gure diskurtsoetan agertzen ez bada, heterosexualitate presuntzioan hezten ari gara. Eta gero, zertarako balio du bat-batean nerabezaroen sexu orientazio aniztasunaz hitz egiteak, txikitatik eredu heterosexualean soilik hezi baldin badugu? Sexualitateez eta sexu aniztasunean hezi behar da haurra, etorkizunean bere beharrak modu naturalean bizitzeko, homosexualitatea modu naturalean onartzeko eta bere beharrak modu zorionsuan asetzeko.

Imitazio eta identifikazio ereduak

Haurrak jasotzen duen informazioaz gain, eragin handia du ingurukoek sexualitatea nola bizi duten. Naturaltasuna eta gardentasuna dira gakoak, baina horrek ez du esan nahi modu perfektuan egin behar dugunik. Pertsonak gara eta dudak, lotsak eta beldurrak izan ohi ditugu, perfektuak izan behar dugula erakutsi diguten arren. Eta horregatik, garrantzitsua da haurrek hori ikustea, beraiek ere dudak dituztenean, lasai adierazten saiatzeko.

Haurrak bere ingurunean aukeraz betetako eredu anitzak baditu, zailagoa izango da bera etorkizunean baztertua sentitzea.

Gorputza ezagutzen eta ukitzen

Haurrak, nola ez, bere eta besteen gorputza ukitzeko kuriositatea du, eta genitalak ukitzekoa ere bai. Esfinterraren kontrola dela eta, ordura arte eskura gelditzen ez zitzaion gorputzeko atal bat bistan izango du, eta gorputzeko beste atalak bezala, hau ere ikertuko du, atsegina sortuko diolarik. Ukipen horiek hasieran ikerketa badute ere

Sexualitatearen inguruan hitz egiten dugunean garrantzitsua da sexu orientazio anitez hitz egitea, esaten ez duguna ikusezina bihurtzen baitugu.



Zertarako balio du bat-batean nerabezaroan sexu orientazio aniztasunaz hitz egiteak, txikitatik eredu heterosexualean soilik hezi baditugu?

helburu, segituan plazera ere xede bihurtzen da. Garai bakoitzean modu desberdinean biziko dugu plazera. Helduen plazera esanahiz bete dago eta haurrena oraindik ez. Gainera, ez da hain plazer genitalizatua, irekiagoa da.

Masturbazio horren aurrean, helduek izango dituzten jarrerak erabakiorrak dira haurra eraikitzen ari den sexualitate horretan. Horretarako, garrantzitsua da hezitzaile batek zer helburu dituen pentsatzea, intimitatea lantzea, berean uztea... eta horren arabera jokatzeko. Ondorio desberdinak izango ditu egiten denaren arabera. Gerora, haurra bere gelan masturbatzen bada, desberdina izango da intimitatea bilatzeko egitea edota inork ez "harrapatzeko". Eta hor dago gakoa. Haurrak ezin dela masturbatu uste badu, errudun sentituko da. Eta zoriontsu izan daiteke errudun sentsazioarekin?

Biren arteko jolasei dagokienez, garrantzitsuena zergatik sortzen diren eta zer esan nahi duten ulertzea da. Eta hezitzaileek horien artean hartzen duen jarrera, masturbazioaren aurrean bezala, oso erabakiorra da. Haurrentzat agian ez da garrantzitsua neska edo mutil batekin jolastea. Baina heldu baten desberdina izango da. Ondorioz, erreakzioak ere desberdinak izan-

go dira. Eta une horretan, haurrak erreakzio hori ikasiko du.

Aukerarik ez mugatu

Haurren sexuazio prozesua aurrera doa eta helduen igurikapenak prozesu horretan islatzen dira, eta poliki-poliki identitate sexual bat eraikitzen doa. Urte t´erditik aurrera, jada neskatoek eta mutikoek desberdin jokatzen dute eta 2 urterako jada, nahiz eta argi esateko gai ez diren, neska edo mutil sentitzen dira. Baina sentimendu hori ez dute beraien hormonek, gonadek edota genitalek sortzen, euren itxurak (arropak, ilea...) eta sozializazio prozesu motz horretan ikasi dutenak baizik. 6 urte dituztenerako jada gehienak sentitzen dira neskak edo mutilak. Prozesu honetan garrantzitsua da haurrei erakustea ez dagoela neska eta mutilentzako jolas, arropa ezta lanbide zehatzik. Haur bati, bere generoarenak kontsideratzen ez ditugun jolas eta jostailuak gustatzen zaizkionean, helduen beldurrez zipriztindutako gatazka eta anabasa datoz. Batsuengan, gainera, euren haurra femeninoagoa edo maskulinoagoa izateko "beldurrak" sortzen dira. Eta beldur horiek gauzak normalizatuta ez daudela ikusteko adibide sinpleak dira.

Hezitzaileok lan asko egin behar dugu identitate sexuala, desira orientazioa eta generoa ez nahasten. Eta batez ere, haurrei beren aukerak ez mugatzen.

Jada 6 urterako arauak onartzen eta jelskortasunak gaintzen hasiak dira, eta berdinen arteko taldeak garrantzi dezente du. Sozializazio agenteek garrantzia eta eragin handia dute. Jokabideekiko kontrol sexuatu bat dago, neskak eta mutilak desberdin tratatzen direlarik. Eta eskola, ez da salbuespena.

Eskolan, bere orokortasunean, heterossexualitatean hezten da. Materialak, egiturak, antolamendua, hezitzaileen hizkuntza eta formazio faltak sexu aniztasuna behar den bezala ez lantzea dakar. Hortik arazoak familia eredu anitzak ulertzeko eta homosexualitatea naturaltasunez bizitzeko. Horrez gain, neskentzako eta mutilentzako rol desberdinak bideratzen dira, gaitasun desberdinak jorratzen dira eta igurikapen desberdinak daude. Garai honetan oso ohikoa da haurrei ea neska-lagunik edo mutil-lagunik baduten galdetzea, betiere norabide bakarrean. Eta batez ere, oso esanguratsuak izaten dira galdera horren ondoren egiten diren aiupak.

Garai honetan masturbazioaren plazeraz jabe daitezke edo mantentzeko, eta helduen moralak bereganatzen hasten dira, arau unibertsal gisa ulertuz. Horregatik, oso garrantzitsua da haurrak beste kulturak eta pentsatzeko modu desberdinak ezagutzea, "unibertsalak" edota finkoak diren gauza gutxi daudela erakusteko. Sexualitatearen inguruan hitz egiten dugunean ere garrantzitsua da sexu orientazio anitzez hitz egitea. Esaten ez duguna ikusezina bihurtzen baitugu. Sexualitatea eta erotika ulertzeko modu desberdinak daude eta hezitzaileek horri buruzko ikuspegi positiboa ematea garrantzitsua da.

Latentzia etapa delakoa

6-12 urteko etapari sarri latentzia etapa deitzen bazaio ere, garai honetan haurren sexuazio prozesua martxan dago eta bere sexu kuriositatea ere bai. Izan ere, garai honetan entzuten eta ikusten duen guztiak eragin zuzena du. Beraz, adin hau ez da inondik inora pasiboa eta poliki-poliki esanahi asko doaz eraikitzen.

Eskolarako proposamenak

Pablo Cantero: “Ikasle gay, lesbiana eta transexualen beharrei erantzuten jakin behar dugu”

Gehituk Haurtzaroan afektibitate eta sexu aniztasunean heztea izeneko jardunaldiak antolatu ditu eta bertan parte hartu du Pablo Cantero Extremadurako Fundación Trianguloko kideak. Ikasgelan gai hori lantzeko baliabideak erabiltzeko deia luzatzen du.

Nola landu beharko litzateke sexu aniztasuna eskolan?

Abiapuntua, hizkuntzaren eraldaketa izan beharko litzateke. Ikerketek diote, hizkuntza homofobia oso bortitza izan daitekeela haur gay eta lesbientzat, edota guraso homosexualak dituen haurarentzat. Oso ohituak gauden egunerokotasunean hizkuntza hau erabiltzera: maritxu, marimutil, mari-koi... Gehienetan iraina da helburu. Batek, homosexuala izan aurretik ere, badaki iraindua izan daitekeela. Ez badugu hezkuntza espazioetan erabiltzen dugun lengoia aldatzen, konplexua izango da beste ekintza batzuk eta materialak sartzea ikasgelan. Hizkuntzak, neskatila batek edo mutiko batek munduaren ikuspegia eraikitzen dagoen horretan, mundu ikuskera egituratzen lagunduko dio.

Bestalde, esaten ez dena, ez da existitzen! Ez badugu sexu aniztasunari buruz hitz egiten, ikusezina bihurtzen dugu. Ezin dugu gure diskurtsoetatik errealitatea ezkutatu.

Ba ahal dugu nahiko tresna, baliabide eta formazio eskura?



Sarri pentsatzen dugu tresna gutxi daudela sexu aniztasuna lantzeko, baina badaude: liburuak, karta-jokoak, jolasak, ipuinak, filmak, bideoklipak... Haur literaturan hainbat modutara landu daiteke gaia; sexu bereko bikote baten harremana izan daiteke ipuinaren haria, edo hori bigarren mailako datua izan daiteke soilik, eta ikaskuntza hori ere oso positiboa da. Betiko liburuak erabil ditzakegu, guk geuk malgutasunez moldatuz.

Bestalde, jolas eta jostailuei dago kienez, marko heterosexual bakar eta sexista horretatik atera eta neska-mutilei nahi duten jolasekin ibiltzen lagundu behar diegu. Mutikoak panpinekin jolastu nahi badu ezin diogu aukera hori mugatu, alderantziz, jolasa etxeko lanak eta ardura banaketak lantzeko erabil dezakegu. Guk ez badiogu horretarako aukerarik ematen eta ez badiogu bide horretan laguntzen, gero zaila izango da heldua denean hori barneratzea.

Haurtzaroan eraikitzen diren harremanak lantzeko moduak ere

garrantzia handia du.

Atxikimendua daukagun pertsonen harremanak oso garrantzitsuak dira, ondoren jendearekin erlazioatzeko modua eraiki ahal izateko. Era berean, haurrek beste haurrekin eraikitzen dituzten harremanak oso garrantzitsuak dira jolas sozialak lantzeko. Hezitzaileok ez dugu beldurrik izan behar haurrak maitasun jolasekin badabilta, eta inolaz ere ez ditugu gutxietsiko haurrak une horietan sentitzen dituzten sentimenduak. Haurra maitemintzen bada, sentimendu hori sentitzen, eza gutzen eta onartzen ikasiko du eta horri garrantzia eman behar diogu, balioa kendu gabe. Eta noski, ez dugu guk orientatuko alde batera edo bestera. Bere bat-batekotasuna izango da bilaketa eta ikerketa gidatuko dituen.

Aniztasunean sexu eta afektibitate hezkuntza: zehar lerro ala eduki gisa?

Azken finean, sarritan hezitzaileak edukiak lantzen ditu batez ere eta hain oinarrikoak diren gaiak alde batera uzten ditu. Haur Hezkuntzan, adibidez, hezitzailearentzat errazagoa da jarrerak lantzea egiturak berak malgutasun gehiago daukalako, baina goragoko etapetan zailagoa da. Gainera, zehar lerroak askotan hezitzaileen borondatearen esku gelditzen dira. Hortan datza “Herriartasunerako Hezkuntza” delako ikasgaiaren garrantzia. Ikasgai horretan lortu dugu sexu aniztasuna-



ren gaia lantzea, nahiz eta eliza katolikoa atal horiek kentzeko prest agertu den. Ikasgai honek aukera ematen du gai hauek curriculum barruan jorratzeko: desberdintasunaren balioa, homofobiaren lanketa, familia homoparentalak eta sexu eta afektibitate aniztasuna. Ez dut uste hori irtenbidea denik, aproposena ikasgelatik bertatik egitea izango litzateke, edozein gaitan. Baina hori konplexuagoa denez, aukera ona da.

Ikasgelak aniztasun gelak izan behar dira eta ikasle anitz bakoitzari daukagun onena eskaini behar diogu. Eta ikasle gay, lesbiana edo transexualen beharrei erantzuten jakin behar dugu.

Ze paper betetzen dute komunikabideek?

Komunikabideek, sarri, gustatzen ez zaizkigun ereduak erabiltzen dituzte, estereotipoetara jotzen dutenak. Baina gu geu balia gaitzeko telebistak eskaintzen dizkigun irudiez, eta ikasgelan horiek profitatu.

Adibidez, duela gutxi arte telebistan familia tradizionalaren irudia soilik agertzen zen, baina gauregun telesailetan familia eredu berriak ere ari dira sartzen: berregituratutako familiak, guraso bakarrekotako familiak...

Gaur egun, komunikabideetako eredu homosexual positiboena aukeratu eta ikasgelan horien inguruan hitz egin, gaia landu eta diskurtsoak berreiraki ditzakegu. Noski, arazo gehiago izango ditugu lesbiana erreferenteak aurkitzeko, gay erreferenteak baino. Lesbiana izateak, emakume izatea dakar, beraz, diskriminazioa bikoitza da eta are ikusezinagoak bihurtzen dira jendartearen.

Sexu aniztasuna lantzeko materiala

Haur literatura:

- *Ene amak*. SOODEN, Vanessa (euskaratzailea Belene Salazar Larrañaga), Mairi argitaletxea, Sopela.
- *Aitorrek bi ama ditu*. MENDIETA, Mari Jose eta ZABALETA, Jon (ir.), Erein, Donostia, 2004.
- *Ane eta abate txoak*. R. LORENZO, Manuel eta ERLICH, Bernardo (ir.), Afortiori, Bilbo, 2005.
- *Elkarren gustokoak gara*. JuanolO, Tandem Edicions, 2006 (euskaratzailea Kattalingorri).
- *Marrazteko gaiak*. EIROA, Mauro eta DOMÍNGUEZ, Angel (ir.), Afortiori, Bilbo, 2005.
- *Pirritx eta Porrotx: Gorka kopontzailea*. MURUA, Mitxel eta TOKERO, Julen (ir.), Elkarlanean, Donostia, 2005.
- *Iris eta Lila*. MUJIKÁ FLORES, Ana, Aldarte: Gay, lesbiana eta transexualei arreta zentroa, Berdindu: Lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzu, Bilbo, 2005.
- *Txiukue*. OLAIZOLA, Alaitz eta ZABALETA, Jon (ir.), Erein, 2005.

Ikas-liburua:

- Kilimak. *Sexuen Hezkuntza lantzeko ikas-liburua. 8-10 urte*. SANCHO, Nerea eta LANDA, Ivan (ir.), Erein, 2006.

Jolasak:

- ¿QUIEN VIVE AQUÍ?, Ekilikua, Nafarroa. Aniztasuna lantzen duen mahai jolasa. Fitxak euskaraz ditu.

Karta-jokoak:

- Pirritx eta Porrotx: familien karta jolasa. Gehitu, Agipase, Beroa, Ume alaia Elkar eta Katxiporreta.
- 7 famili eredu. Aldarte eta Berdindu.

Berdindu eta Aldarte elkarten maleta didaktikoa:

DVDa, zikloetarako lan koadernoak, *Iris eta Lila* liburua, familientzat gida didaktikoa, karta-jokoa eta posterra biltzen ditu material honek. 2006ko Emakunde saria jaso du.

Pelikulak, bideoak, bideoklipak: ikus-entzunezkoak.

Ikus-entzunezkoak oso baliagarriak izan daitezke ikasgelan ikusteko, adinaren eta denboraren arabera egokituz. Ikus-entzunezkoen bitartez, barne emozioak landuta eztabaida eta hausnarketa dinamikoak egin daitezke.

Ipuin kontalaritza

Baliabide garrantzitsua da ipuina, eta are gehiago ondo kontatzen denean. Komunikatzeko tresna aparta, arreta gorputzean, ahotsean eta keinuetan bereganatzen delarik. Magiaz ziprinduz eta bere funtzio ludikoaz baliatuz, ipuinaren bitartez eraldatzen den jendartea plazara daiteke. Belarriak goxatu bitartean, mezuak transmititu daitezke eta aniztasuna lantzeko baliabide aberatsa da.

Magala: familia homoparentalen elkarte

“Haur bati min handia egin diezaioke berea familia bat ez dela erakusteak”

Magala elkarte 2005. urtearen hasieran sortu zen, haurrak eduki- tzea erabakitako bikote gay eta les- bianaen eskutik. Gaur egun 15 fami- liek osatzen dute, eta lan ugari egiten ari dira familia aniztasuna bultzatzearen alde. Bestalde, elkarteko fami- lietako haurrentzat ere esperien- tzia aberatsa izaten ari da. Marijo Mendieta eta Pili Hermoso Magala elkarteko kideak dira.



Nola eta zergatik sortu zen elkarte?

MARIJO: Gay eta lesbianen mugimen- duak lan ugari egin du lege eskubideen alde eta gizarte alorrean. Legeak haur batek sexu bereko bi guraso izatea onartzen du- nean, familia homoparentalak sortzen dira. Lege aldaketa hori eman arte, gure seme- alabek hautatu dezakete beren familiaren berri ematea edo ez, baina une honetatik aurrera, haurrak bi gurasoen abizenak har- tzen ditu. Beraz, haurrak txikitatik bizi behar dute errealtate horrekin, eta hori lan- du beharra dago. Konturatu ginen, nahiz eta legea onartu, administrazioan ezer gu- txi aldatu dela, eta desatsegina da joaten garen eskola bakoitzean arraroak senti- tzea. Nahiko iskanbilatsua iruditzen zaigu legea onartu eta ondoren ezer ez egitea, adibidez irakasleria errealtate honetarako ez prestatzea. Hala, errealtate horren au- rrean, abentura berdintsuan sartutako bikoteak elkartu eta Magala sortu genuen.

Zein dira elkartearen helburu nagusiak?

MARIJO: Elkarte sortzean, gure helbu- ru nagusia, alde batetik, gure haurrek beren familien antzeko eredu duten familiak eta haurrak ezagutzea izan zen. Esperientzia hori eskaini ahal izatea. Bestalde, kanpora

begira lana egitea nahi dugu, batez ere hez- kuntza munduari begira. Hala, gure espe- rientziak trukatzeko harreman sarea sortu genuen, eta era berean, egoera honetan dauden familia homoparentalei informa- zioa emateko aukera sortu dugu.

Beraz, esperientzia positiboa izango da zuen haurrentzat, ezta?

PILI: Bai, asko lagundu die. Gure ala- bak, beste familiarekin elkartzeko ez ginenean ere ongi eramaten zuten. Baina Magalako jendea ezagutu zuenean, konturatu zen be- ra bezalako haur asko zeudela, eta asebetet- tze hori hainbat modutan adierazi zuten. Oso adierazkorra izan zen. “Jokin ni bezala- koa da!” edo “Noiz geldituko gara amatxoek- in eta aita xoekin?” zioen.

MARIJO: Gure semearekin beti erabili dugun estrategia bi ama edo bi aita agertzen diren ipuinak kontatzea izan da (bai baitau- de, nahiz eta jendea ez den konturatzen). Nik beti esplikatu diot, “zuk ez duzu aita- txorik, baina bi amatxo dituzu!”. Baina au- rreko batean, eskolatik etorri eta zera esan zidan: “Ama, zuk esaten duzu modu asko- tako familiak daudela, batzuk ama baka- rrik daukatela, beste batzuk aita... baina ni- re gelan guztiak dituzte aita eta ama!”. Horregatik, Magalak zeregin garrantzitsua


betetzen du, zeren elkarteko beste haur ba- tzuek ere bi ama dituzte. Eta beraiek hobeto sentitzen dira, bereziagoak.

PILI: Eta gero, egiten duzun lan pertso- nala ere oso garrantzitsua da. Gure alaba koadrila batean hazi da, eta koadrilan pro- zesu guztia bizi izan dutenez, denek oso ondo dakite gure alabak bi ama dituela. Bi- kotea eta biok eskolara txandaka joaten ga- ra haurraren bila, gainerako haurrak ikus dezaten bi ama dituela. Hor sortzen dugun irudia oso garrantzitsua da. Beste gauza bat da eskola barruan lantzen den edo ez.

MARIJO: Elkarteko haur bat eskola ba- tean sartzen den unean, zuzendaritzari eta irakasleari gure errealtatea esplikatzeko diegu, kontuan izan dezaten. Denak oso jatorrak dira, baina gero konturatzen gara, egunerokotasunean, ez dela gaia lantzen kasu gehienetan.

Egungo eskola komunitatean, jakinik eskola gehienek batez ere eredu heterosexualean bakarrik hezten duela, zer dakar haurarentzat guraso homoparentalak izatea?

MARIJO: Eskolan ez da familia anizta- suna lantzen. Familiari buruz hitz egiten de- nean, familia eredu tradizionalari buruz soilik hitz egiten da eta ez dira beste familia



ereduak aztertzen. Gure seme alabak, horren aurrean, arraro sentitzen dira, izan ere, beraiena ez dela familia bat esaten ari zaizkie. Desberdin sentitzen dira, baina ez desberdin modu positiboan.

PILI: Hori da mezua, desberdintasuna positiboa dela erakustea.

MARIJO: Euskal Autonomia Erkidegoan, EHUren ikerketen arabera, % 52k ez du betetzen betiko familiaren profila. Gizarte errealitate bat da, baina non lantzen dute hori? Gure seme-alabak bakarrik aurkitzen dira halako egoera baten aurrean eta ezin dira helduak bezala defenditu. Beraiena ez dela existitzen esaten ari zaizkie. Eskola gehienetan familia eredu bakararekin ari dira lanean. Familia lantzeko fitxetan aita, ama eta seme-alabak jartzen du, eta duela gutxi, elkarteko haur bati ere halako fitxa eredu bat eman zioten. Horretan ere poster horiekin aurkitzen gara. Eta hau ez dio gu bezalako familiengatik bakarrik, haur asko daude ama bakarrik dutenak, aita bakarrik, gurasoak banatuak dituztenak, aiton-amonekin bizi direnak... Fitxa eredu desberdinak egon beharko lirake. Nik haur eskola batean lan egiten dut eta badiugu fitxa eredu desberdinak.

PILI: Nik uste dut, fitxa eredu desberdinak baino, denontzako balio duen eredu unibertsal bat sortu beharko litzatekeela. Familia, amona, bi aita edo beste edozein izan. Bestela azkenean betikoa da, "normalentzat" fitxa bat eta besteentzat beste fitxa batzuk.

MARIJO: Adibidez, ikasgela batean ge-

lako haurren erdien gurasoak bananduta daude eta ikasgela horretan oraindik ere familia eredu hori lantzen ari dira. Nola gerta daiteke hori?

Eta materialei dagokionez?

MARIJO: Materiala oso heterosexista izan arren, aniztasuna lantzeko materiala badago, baina ez da asko erabiltzen. "Aitorrek bi ama ditu" eskola gehienetan dago eta Berdindu eta Aldartek eskola guztietara bidali zuten material bat ere bai. Baina gehienetan ez da erabiltzen eta batzuetan idazkaritzan gordeta aurkitu izan dugu. Eta erabiltzen duenak, gaiarekin kontzientzia-tua dagoelako, edo bere ahizpa lesbiana delako, edo bera homosexuala delako... erabiltzen du, beste gehienek ez. Baina gero inor ez da homofoboa, inor ez da sexista. Banandutako familietan ere berdina gertatzen da. Nahiko gogorra da jada haur horientzat, eta bitartean eskolan Disneylandiarekin jolastan, non aitaxo eta amatxo goxo-goxo gaztainedekin agertzen diren. Hori ez da egungo errealitatea eta ikasgeletan hori landu egin behar da.

PILI: Bestela, tolerantzia gutxiko haurrak hezten ari gara. Hemen aniztasuna lantzen ez dugun bitartean, eskola jazarpen-rako beste fokoa bat irekitzen ari gara. Eta horren beldurra ere badugu.

Hezitzaileei dagokionez, zer uste duzue, prest al daude sexu aniztasunean hezteko?

MARIJO: Magalan zera uste dugu, ira-

kasleei egoera esplikatzen diezunean, guraso elkartarekin eta zuzendaritzarekin hitz egiten ditzunean, denak oso jarrera ona azaltzen dutela. Baina egunerokotasunean, aurreiritziek indarra hartzen dute eta gehienek gaia ez dute lantzen. Horregatik, Magalatik zera aldarrikatzen dugu: hezitzaileak prestakuntza jaso behar dutela familia aniztasunaren inguruan. Izan ere, badirudi inork ez baditu horretara derrigortzen, ez direla konturatzen beren gelan familia anitzak daudela. Homofobia oso gaizki ikusia dagoela konturatzen gara, eta orduan, jendea oso modernoa dela. Baina badirudi, hezitzaile bat gelan famili mota anitzak daudela adieraztera derrigortu arte, bere buruan dituen eredu tradizionalak erabiltzen jarraituko duela, eta hori hezitzaile batek ezin du onartu. Aniztasunaren balio positiboa landu behar da.

PILI: Gero, irakaslearen arabera da. Irakasle bakoitzaren irizpideen arabera lantzen da gaia edo ez, eta hori ezin da horrela izan, egituratua egon behar du. Nire alabak orain duen irakaslea oso jatorra da eta hasieratik konturatu zen egoeraz. Baina ez da justua nik haurrak irakaslez aldatu behar duen bakoitzean angustia hau pasatzea, ez dakidalako irakasle horrek gaia nola landuko duen.

MARIJO: Haurbati min handia egin diezaiokeete bereak ez duela balio, berea ez dela familia bat erakusten ari direnean. Eta beraiek ezin dira defendatu. Ezin gara beti gu izan bultzaka ari garenak errealitate hau lantzeko, hezkuntzak bere ardurak bete behar ditu.

Pili: Bai, eta prestakuntzaz gain, maila orokorragoan ere, beharrezkoa da familia aniztasuna lantzeko kanpainaren bat egitea. Aniztasuna entzunarazi egin behar da, modu guztietako haurrak daude, modu guztietako amak, aitak, izebak, aitonak, zuriak, beltzak, horiak eta urdinak...

Magalarekin harremanetan jarri nahi duenak: 943 55 77 62 eta magala@magala.org

richard stallman

ELKARRIZKETA

Software librearen sortzailea

“Software pribatiboak ikasleak
menpean hartzen ditu. Software libreak,
berriz, askatasuna ematen die”



richard stallman



Software libreaken aitatzat zaituzte. Beraz, egokiena zuri galdetzea izango da: zer esan nahi du software libreak?

Erabiltzailearen askatasuna eta elkartasun soziala errespetatzen dituelako deitzen zaio software *librea*. Software libreaken definizio zehatza, ordea, oinarrizko lau askatasunek osatzen dute:

0. *askatasuna*: programa nahi duzun moduan erabiltzeko askatasuna da.

1. *askatasuna*: programa aztertu eta aldatzeko eskubidea da. Horretarako beharrezkoa da iturburu kodea ezagutzea, kodea publiko izateak programak aldatzeko askatasuna ematen baitu.

2. *askatasuna*: kopiak egiteko askatasuna izanez, lagun hurkoari laguntzeko gai izatea da.

3. *askatasuna*: programa hobetu eta hobekuntzak publiko egiteko eskubidea da, hobekuntza horiek komunitate osoak aprobetxa ditzan.

Lau askatasun horiekin erabiltzaile bakoitza *librea* da, eta erabiltzaileen arteko elkartasun soziala posible egiten da. Norbera *libre* izan daiteke eta, aldi berean, komunitate bateko partaide.

Programa pribatiboa delako oinarrizko askatasun horietako bat falta denean, ordea, erabiltzaileak software pribatiboaren eta berau garatzen duten enpresen menpe gelditzen dira. Programa horien erabiltzaileen askatasuna mugatu egiten da. Hori bidegabea da, ez du horrela izan behar. Software pribatiboak ez du existitu behar.

Zer alternatiba eskaintzen du software libreak bidegabekeria horren aurrean?

Informatika munduan oso ezaguna da Richard Stallman, software libreaken erreferente nagusia. Despistatu itxurako jenioa, batera eta bestera bidaiatuz bizi da, mundu osoan zehar software libreaken filosofia eta balioak ezagutarazten.

Harvard-eko ikasle zelarik, Massachusetts Institute of Technology-ko (MIT) Adimen Artifizialaren sailean egiten zuen lan. Zeregin horiek utzi eta beste erronka bati heldu zion 1983an: ordenagailu sistema oso eta libre bat sortzea, lizentziarik eta monopoliorik gabeko sistema, alegia. Horrela, GNU proiektua martxan jarri zuen, horren baitan, askatasuna eta elkartasuna oinarri dituen sistema eragile libre bat garatzeko. Sortu zenetik Software libreaken komunitatea hedatzen ari da, ez bakarrik erabiltzaileari eskaintzen dizkion abantaila praktikoengatik, baizik eta, batez ere, erabiltzailearen askatasuna bermatzen duelako. Stallmanekin bildu gara software libreaken inguruan hitz egiteko. Hezkuntzak duen zereginaz aritu gara, ikastetxeek, irakasleek eta ikasleek software libreakin egin dezaketenaz eta baita software libreak haiengatik egin dezakeenaz ere.

E

“Herritar zintzoak izateko, eskolak arau hau bete behar du: “Gelara programa bat ekartzen baldin baduzue, ezin duzue zuentzat gorde, gainerako ikaskideekin partekatu behar duzue”. Eta noski, eskolak eredu izan behar du. Hortaz, eskolak ere, dauzkan softwareak partekatu egin behar ditu.”

Komunitate libre bateko kide izateko aukera ematen du. Horixe zen, hain zuzen ere, nik nahi nuena, eta horregatik abiatu nuen software librearen aldeko mugimendua, 1983an. 1984ko urtarilean hasi nintzen sistema eragile librea, GNU deitzen dena, garatzen.

Zein dira software libreak, oro har, gizarteari eskaintzen dizkion abantailak?

Abantaila askatasuna da. Baina abantaila hitza ahulegia da askatasunari buruz hitz egiteko. Zeren askatasuna funtsezkoa baita, lan eta sakrifizio handia eskatzen dituena, eta beraz, abantaila deitzen badiogu, beste gauza hutsalagoekin konparatzen dugu, eta hori ez da zuzena.

Egia da programa libre batzuek abantailak dituztela, abantaila praktikokoak: oso fidagarriak dira, gaituak, eraginkorak, akatsak (daudenean) berehala konpontzen dira, doan lor daitezke, ez da lizentziarik ordaindu behar, ez da programa erabiltzeko baimenik behar... Horiek guztiak software libreak eskaintzen dituen abantaila praktikokoak dira.

Baina auzi hori bigarren mailakoa da. Garrantzitsuena komunitate libre batean parte hartzeko aukera da.

Orain arte software pribatiboa erabili da eskoletan. Zer eragin izan du horrek?

Microsoft-ek eta horrelako enpresek eskolak erabiltzen dituzte ikasleak euren produktuetara engantxatzeko. Programa pribatiboen doako kopiak banatzen dizkiete eskolei, eta ikasleek horiek erabiltzen ikasten dute. Lehenengo dosia, beraz, doan da, ikasleak menpean hartzeko eginkizuna duela. Ikasleek ikasketak bukatzen dituztenean mendekotasuna dute eta, noski, orduan, ikasle ohiei eta haiek lan egiten duten enpresei ez dizkiete kopiak doan banatzen. Gizarte osoa programa pribatiboen eske jartzeko erreminta da eskola.

Hori dela eta, ikastetxeek trikimailu horretan parte hartzeari uko egin behar



diote. Ez diete utzi behar enpresa pribatuei nahi erara erabil ditzaten, ikasleak produktu jakin batzuen menpe jartzeko. Microsoft-ek edo horrelako beste enpresa bateko eskoletan bere softwareak erabiltzea lortzen duenean etorkizuneko langileriaren jabe izatea lortzen du.

Horrez gain, amarru gehiago erabiltzen al dituzte?

Bai, batzuetan arduradunak "erosen" dituzte, edo baita estatuak ere, onurak eskainiz eta euren leialtasuna sarituz. Esate baterako, Microsoft-ek garapen zentroak ireki izan ditu hainbat herrialdetan, eta horren truke gobernutik diru gehiago jasotzen du. Danimarkako egunkari batean argitaratutakoaren arabera, Microsoft-ek gutun bat bidali zien hango ministroei esanez Microsoft babesten ez bazuten, ez zituela patenteak babestuko Europan eta 3.000 langileko enpresa bat Danimarkatik beste herrialde batera lekualdutuko zuela. Xantaia horren aurrean, gobernuak amore eman zuen. Merkatu librearen ondorioa da. Merkataritza libreko itunak zertarako egiten dira? Gobernuen boterea enpresen eskuetan uzteko. Horregatik dira bidegabeak.

“Gauza bat eduki behar da argi: software pribatibotik software librerara emigratzeko, askatasuna baloratu behar da, eta borondatea behar da. Baina ez zalantzaz betetako borondatea, borondate irmoa eta kementsua baizik. Borondate irmoz edozein oztopo gainditzeko moduak aurkituko dira.”

E

“ Askatasunaren aldeko borroka batean murgilduta gaude, eta gudu-zelaia ikusten da: askatasunaren aldeko borroka globala enpresen boterearen aurka. Horren aurrean, bi aukera ditugu: enpresen boterea eta inperioa globalizatzea, edo kooperazioa, elkartasun soziala eta askatasuna globalizatzea. Software librea erabiltzea bigarren aukeran sartzen da.

”

Nola konbentzituko zenituzke hezitzaileak software librea erabil dezaten?

Konbentzitu ez dakit egingo ditugun, baina software librea erabiltzeko arrazoiak eman diezazkieket.

Lehenengo arrazoia da azalekoe-na: dirua aurrezten da. Software librea erabiltzeko ez dago hura erosi beharrik; software pribatiboa erabiltzeko bai, ordea.

Bigarrena, eskolak software librea balia dezake ikasle gaituak eta ongi prestatuak bultzatzeko. Alegia, askatasunaren bidea aukeratuz gero, gizarte libre batean herritar libre modura bizitzeko gai diren ikasle prestatuak heziko dira. Izan ere, eskolek hurrengo belaunaldiak hezteko funtzioa daukate. Nola? Askatasunaren bidea erakutsiz.

Software librea erabiltzeko hirugarren arrazoia, berriz, heziketa informatikoarekin lotuta dago. 14 urterekin, gutxi gorabehera, gazte batzuek ordenagailuaren funtzionamendua ikasi nahi izaten dute. Programa bat erabiltzen baldin badute, nola funtzionatzen duen jakin nahi izaten dute. Baina ikasle batek irakasleari programak nola funtzionatzen duen galdetzen dionean, pribatiboa baldin bada, irakasleak ez daki erantzuten; inork ez baitaki programa horrek nola funtzionatzen duen. Sekretua da. Beraz, heziketa pro-

zesua eten egiten da, ikasleak ezin delako gehiago ikasi. Aldiz, software librea baldin bada, irakasleak guztia azal diezaioke: “Begira, hemen daukazu programaren iturburu kodea; irakur ezazu eta dena ulertuko duzu”. Eta noski, dena jakin nahi duen ikasle horrekin egingo du. Hori da, gainera, ongi programatzen ikasteko bidea edo modua. Ikasle horiek ez dute programazioa ikasi beharrik izango, beraientzat oso argi dagoelako. Beharbada, kodea ondo idazten ikasi beharko dute, kode asko idazten baitira. Baina, hori egiteko aukera software libreak soilik ematen du.

Eta azkenik, software librea erabiltzeko laugarren arrazoia, sakoneko arrazoia, heziketa etikoa da. Herritar zintzoak izateko, eskolak arau hau bete behar luke: “Gelara programa bat ekartzen baldin baduzue, ezin duzue zuentzat gorde, gainerako ikaskideekin partekatu behar baituzue”. Eta noski, eskolak eredu izan behar du. Hortaz, eskolak ere, dauzkan softwareak partekatu egin behar ditu.

Prestakuntza berezirik jaso behar al da software librea erabiltzen hasteko?

Bai eta ez. Instalatzeko ez da ezer jakin beharrik, beste norbaitek instalatzeko. Baina ondoren, bai, erabiltzen





ikasi behar dute. Ez da zaila eta laguntza eska daiteke. Hemen Euskal Herrian ja da jende asko dago software librea erabiltzen duena. Eta Extremaduraren laguntza ere eska daiteke. Izan ere, han hezkuntzako arlo guztietan erabiltzen dute, eta horregatik, ezagutza eta esperientzia handia dute. Alde horretatik, Extremadurako esperientzia eredugarria da. Autonomia Erkidego horretan software librearen aldeko apustua egin dute, denek. Mundu mailan hainbeste orokortu den esperientzia bakarra da. Brasilen ere badaude software librea erabiltzen duten institutuak, baina ez da orokortu. Katalunian ere ari dira za-

baltzen, baina ez dakit zein puntutaraino iritsiko diren. Extremaduran erabat egin dute, etikan oinarritutako erabaki politiko bat izan delako.

Dena dela, ikastetxe batzuetan aldaketa hori egiten saiatu diren arren, nahiko etsigarria izan da. Zer egin daiteke hori saihesteko?

Extremadurakoekin harremanetan jarri, adibidez. Han jauzia eman dute eta urteak daramatzate ongi funtzionatzen. Ez da zaila. Gauza bat eduki behar da argi: software pribatibotik software librerara emigratzeko, askatasuna balo-

“ Microsoft-ek eta horrelako enpresek eskolak erabiltzen dituzte ikasleak euren produktuetara engantxatzeko. Programa pribatiboen doako kopiak banatzen dizkiete eskolei, eta ikasleek horiek erabiltzen ikasten dute. Lehenengo dosia, beraz, doan da, ikasleak menpean hartzeko eginkizuna duelako. Ikasleek ikasketak bukatzen dituztenean mendekotasuna dute eta, noski, orduan, ikasle ohiei eta haiek lan egiten duten enpresei ez dizkiete kopiak doan banatzen. Gizarte osoa programa pribatiboen eske jartzeko erreminta da eskola.

”

E

“ **Extremaduran ezagutza eta esperientzia dute eta hezkuntzako arlo guztietan erabiltzen dute software librea. Alde horretatik, Extremadurako esperientzia eredugarria da. Autonomia Erkidego horretan software librearen aldeko apustua egin dute, denek. Mundu mailan hainbeste orokortu den esperientzia bakarra da.** ”

ratu behar da, eta horretarako borondatea behar da. Baina ez zalantzarik betetako borondatea, borondate irmoa eta kementsua baizik. Borondate ahula baldin baduzu, edozein zailtasunen aurrean amore emango duzu; aldiz, borondate irmoa bada zurea, izan ziur lortuko duzula.

Nork eduki behar du borondate hori? Irakasleek? Ikasleek? Agintariek?

Batez ere agintariek, politikariek eta instituzioek. Alegia, aldaketa egiteko adina botere dutenek. Eskola batean erabaki hori hartzeko adina erantzukizun duen norbaitek borondate irmoz jauzia ematea erabakitzen badu, jauzia eman daiteke. Irakasle batek software librea migratu nahi badu eta horretarako gogo irmoa baldin badu, software librea jar diezaike bere gelako ordenagailu batzuei. Ikasleek ere software librea behin eta berriro eskatzen badute, agian lor dezakete egoera aldatzea.

Borondate irmoz edozein oztopo gainditzeko moduak aurkitzen dira. Denok izaten ditugu oztopoak bizitzan zehar, baina borondate irmoarekin, gainditzen ditugu. Zalantzan baldin

bagabiltza, oster, oztopoek beraiek gainditzen gaituzte. Hori hala da.

Zer diote enpresek honetaz guztiaz?

Nire ustez, erabaki politikoak dira garrantzitsuak, erabaki ekonomikoak baino gehiago. Politikan erabakitzen da nola bizi, gizarteko arauak hor zehazten direlako. Oso gai garrantzitsuak dira horiek. Erabaki ekonomikoek, berriz, ez dute politikoez bezainbesteko garrantzirik. Arazoa da, ordea, gaur egun enpresek eskuratu dutela botere politikoa. Eta horrek ez luke horrela izan behar. Enpresek ez lukete inolako botere politikorik eduki behar. Gaur egun politikako oso gai garrantzitsuak ekonomiaren menpe jartzen dira. Eta alderantziz izan beharko luke.

Askatasunaz eta komunitateaz ari garenean, batez ere, gai ekonomikoek askoz ere garrantzi gutxiago hartu behar lukete. Askok, ordea, garrantzitsuen den hori bigarren mailara bihurtzen du, eta behin eta berri errepikatu behar izaten dut garrantzitsuen askatasuna eta elkartasun soziala direla.

Etorkizunari begira, hemendik 10 urtera ikastetxeetan





software libre erabiliko dela uste al duzu?

Ez dakit, hori zuen esku baitago. Askatasunaren aldeko borroka batean murgilduta gaude, eta gudu-zelaia ikusten da: askatasunaren aldeko borroka globala enpresen boterearen aurka. Horren aurrean, bi aukera ditugu: enpresen boterea eta inperioa globalizatzea, edo kooperazioa, elkartasun soziala eta askatasuna globalizatzea. Software libre erabiltzea bigarren aukeran sartzen da: ezagutza eta kooperazioa globalizatzen dira, giza jakintza edonork erabili edo garatu ahal izan dezan. Hobe da zer bait ona globalizatzea zer bait txarra baino.

Ikastetxeetan erabiltzen den material didaktikoa enpresa pribatuek saltzen dute. Software librearen bitartez egin eta zabal al daiteke?

Bai, noski. Ikastetxe batek software libreko programa bat garatu nahi badu, gara dezake, gero software libre moduan argitaratzen badu. Nahikoa da erabakia hartzea. Programak erosi egin beharrean, eurek egin ditzakete, pro-

gramatzaile baten laguntzaz. Eta agian zentro gehiago ere animatuko dira.

Bestalde, denek sal ditzakete kopiak. Software librearen askatasun bat horretan datza, hasieran esan dugun moduan: kopiak banatzeko askatasuna. Normalean, ordea, software librearekin negozioa egiten duenak ez du produktua saltzen, zerbitzua baizik.

Euskararentzat zer onura dakartza software libreak?

Euskaraz programa bat garatu nahi badugu, software libreak abantailak ditu. Ez da ezerezetik hasi behar. Lehendik dagoen programa bat hartu eta euskaratu daiteke. Programa libre batekin edonork egin dezake hori inori baimenik eskatu gabe. Programa pribatiboetan, aldiz, ez dago askatasun hori, kodeak gordeta daudelako.

Ekonomikoki ere, aipatu behar da euskaratzeko ez duela inolako kosturik software librean. Bestela gertatzen da software pribatiboarekin. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzak 200 milioi pezeta (1.200.000 euro) gastatu zituen Windows 98 euskaratzeko baimena lortzeko. Eta horri ondoren etorritako

itzulpen kostuak gehitu behar zaizkio. Tentelkeria galanta. Microsoft-en inperioaren menpe egotearen ondorioa da hori. Hortaz, kontua ez da euskarri bat euskaratzea edo hori egiteko dirua jartzeta, baizik eta askatasuna izatea. Hor dago benetako aldea.

- Teknologia berrien munduan eta nanoteknologiaren garapenarekin dena neurritz txikitzen doa. Baina ordenagailuak baditu bi osagai txikituko ez direnak: pantaila eta teklatura. Ongi ikusteko, pantaila handia behar dugu. Eta azkar eta erraz teklatutzeko, teklatu nahiko handia behar da.

- Bakoitzak bere ordenagailua edukitzearen aldekoa naiz, hori baita norberaren askatasuna bermatzeko modu bakarra. Horren orde gure informazioa sarean edukitzea badugu, ez gara aske.

Eredu berri bat ikasteko: proiektuak garatzen enpresetan bezala

IMH Elgoibarko Makina Erreminta Institutua

Mendi malkartsuen artean dago Elgoibar, Makina Erremintaren hiriburua. Hiri aglomerazio handi honetan, pilatutako etxebizitzak eta eraikin industrialak nahasten dira, iraganaren eta orainaren lekuko. Bertan egiten dira estatu espainiarrean erabiltzen diren makinaren %30, eta aldi berean, estatu espainiarra munduko zortzigarrena da. Testuinguru honetan, eskualdeko industria beharrei begira sortu zen IMH proiektua.



1986an metalgintzako ikasketak desagertzeaz zeuden. Hori zela-eta, Lanbide Heziketako zuzendaritzan zegoen talde bat bildu eta IMH Fundazioa eraiki zuen, enpresa eta erakunde askotarikoen laguntzaz.

Makina erremintaren erabiltzaile eta fabrikatzaileen sektorearen premiei erantzuteko prestakuntza eta teknologia berrikuntza zentroa da IMH.

Hedapen teknologikoarekin eta enpresei zerbitzuak eskaintzearekin batera, prestakuntza teknikoa da egin-kizun nagusietakoa, eta horren barruan, hauek eskaintzen ditu: langile eta langabeentzat prestakuntza iraunkorra, Elearning, Ingeniaritza eta goi

mailako eta erdi mailako heziketa zikloak.

Zikloetan guztira 240 ikasle daude, eta Mekanizazio bidezko produkzioan, 40 ikasle. Hor eraman du aurrera POI esperientzia (Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza) Imanol Iturria, Ander Elola eta Juan Ignacio Irizar irakasleek osatutako taldeak.

Guneka: POIren abiapuntu

Guneka proiektua izan zen POIren abiapuntua. Ikastetxeen antolakuntza eta kudeaketa eredu aurreratuak garatzen dituen R5 sarearen partaide da IMH, beste 4 lanbide eskolarekin batera. 2000. urtean burututako hausnarketaren ondorioz sortu zen Guneka, eta 5 lanbide eskolak osatzen dute.

Horretarako, orduko enpresa aurreratuenak aztertu zituzten, eta zikloaren osotasunaren garrantzia ikasgeletara ekartzen saiatu ziren. “Adibidez, Irizar enpresan autobusak egiten dituzte eta horretarako “mini fabriketan” banatzen dira. Autobusa ez doa sekzio-ka, sei lineatan doa eta talde bakoitzak autobusa hasieratik bukaeraraino egiten du”, dio Imanol Iturriak.

Kudeaketa unitatea GUNEA da, hau da, antolaketa guztia guneetan egiten da: adibidez, ikasgunea irakasleek eta irakasleek osatzen dute, alorgunea departamendua deitzen zaionak, gidagunea zuzendaritza taldeak, eta abar.

”Ikasgunea zera da, irakasle talde batek ikasle talde bat hasieratik bukaeraraino hartzen du eta irakasle talde ho-



Ikasleen eginbeharra proiektuak burutzea da, hasieratik bukaeraraino, hots, eskari batetik abiatu eta ekoizpenaren kudeaketa osoa egitea.

rekudeatzen ditu prozesu horrek bil-tzen dituen ekintza guztiak: ikasleei ha-rerra egin, atazak programatu, irakatsi, ebaluatu, orientatu eta enpresan dau-denean prestakuntza kudeatu”, dio Itu-riak. “Hala, irakasle taldea batu egiten da eta zikloaren hasieratik bukaerara beraiek aritzen dira, ikasle taldearekin

proiektuak aurrera eramaten”.

Irakaslearen rola ere guztiz alda-tzen da. Ezagutzak dituen irakaslea izan ordez, ezagutzaren irakasle izatera pasatzen da. Bere lana zeregin eta ata-zak antolatzea eta horien inguruan era-bakiak hartzea da: zereginak diseina-tzeko, kudeatzeko, irakasteko... auto-nomia dute, eta berritzeko eta hobetze-ko grina.

Guneka antolatzeko egitura hau aurrerapauso bat izanik ere, oraindik ere hutsune nabariak zeuden ikasleen ikaskuntza prozesuan, beheko taulan ikusten den moduan.

Testuinguru horretan, ISO kalitate programarekin eta Guneka proiektua-rekin, aldaketa sakonagoak egin behar



zirela konturatu ziren, jauzi handiagoa egin behar zela. Eta urrats bat gehiago emanez sortu zen POI esperientzia: proiektuen garapenean oinarritutako irakaskuntza.

“Beste herrialde batzuetako zentro-etan nondik mugitzen diren ikusi ge-nuen, aztertu eta ideia horiek gure mo-dura zentratu genituen. Arazoetan oi-narritutako irakaskuntzaren inguruan garatutako Eskandinaviako ereduak interesgarriak iruditu zitzaizkigun. Gauza batzuk erabilgarriak ziren gure-tzat, eta beste batzuk ez. Eta gure egu-nerokoa kontuan hartuz, arazoetan oi-narritzeak baino proiektuetan zentra-tzeak zentzu positiboagoa zuen”, dio Iturriak.

	ENPRESETAN	ESKOLAN
Ordutegiak	Proiektuaren atalaren arabera. Prozesu kronologikoa.	Ikasgaietan banatuta: orduka banatuta, marrazketa, kalitatea, materialak, ingelesa...
Jarrera	Garrantzi handia ematen zaie moldagarritasunari, erronka berriei aurre egiteko gaitasunari, komunikazioari, inplikazioari, ekimenari...	Ezagutza edukien aurrean garrantzia gutxi ematen zaio jarrerari, eta ez da prozesurik sortzen hori lantzeko.
Gidaritza	Ekintzaren parte dira denak; batzuek gidari funtzioa dute, baina denek parte hartzen dute prozesuan.	Ikasgelan irakaslea da prozesua gidatzen duena. Ikasleek batez ere entzun/jaso egiten dute, ez dira guztiz ekintzaren parte.
Lan erritmoa	Egunero egiten da lana.	Azterketa eta lanak emateko garaian, ordu arte egin dena baino askoz lan gehiago egiteko joera sortzen da.
Aplikagarritasuna	Zereginak testuingurua dute, aplikazio erreala ikusten da.	Ikasgaien aplikazio praktiko gutxi ikusten dira eta denbora errealekin ez da jokutzen.

	Eredu tradizionala	POI esperientzia
SARRERA	- Zuzendariak bere sarrera egiten du, ondoren zikloaren kudeatzaileak eta, gero, modulu bakoitzeko irakasleak.	- Ikuspuntu bakarra. - Bisitek zereginei testuingurua ematen diete.
PROGRAMAZIOA	- Ikuspegi askotarikoak, testuinguru falta. - Deskoordinazioa moduluen artean, bikoizketak.	- Moduluetan erabateko koordinazioa, bikoiztasunak saihestuz. - Proiektuak osa daitezke.
IRAKATSI	- Irakasle bakoitza berera. - Emandako gaiak ez dira berriro errepasatzen. - Ez dira lantzen jarrera eta prozedurazko edukiak. - Eskola magistrala.	- Ordutegia PROIEKTUAREKIN. - Ikasguneak eramaten du aurrera proiektua - Egituran garrantzia handia dute prozedurazko eta jarrerazko edukiak ere. - Parte-hartzea lantzen da. - Proiektuaren denbora erreala da.
EBALUAZIOA	- Irizpide desberdinak. - Jarrerak ez dira behar beste baloratzen. - Amaierako esprintaren aukera.	- Irizpide komunak % 70 - Jarreraren garapen egokia lantzen da. - Amaierako esprintaren ezintasuna.

POIren funtsa: proiektuak

Ikasleen eginbeharra proiektuak burutzea da, hasieratik bukaeraraino, hots, eskari batetik abiatu eta ekoizpenaren kudeaketa osoa egitea. Horretarako, irakasle taldeak proiektu bakoitzerako testuinguru bat prestatzen du, eta ikasleen lana da hori aurrera eramatea, pausoz pauso.





MEKANIZAZIO ESKAKIZUN BAT KUDEATZEKO PAUSOAK
Aurrekontuen eskaera
Multzoaren planoak eta ataltzea
Fabrikazio prozesua
Bezeroari proposamena
Eskakizun formala
Ekoizpenaren planifikazioa
Ekoizpena
Kostuen kalkulua
Eskakizunaren kontrola

Beraz, ikasleen denbora irakasgaietan banatu ordez, prozesu honeta-

ra bideratzen da eta prozesuak berak barneratzen ditu irakasgai horien edukiak. "Ordutegiak hiru hilekoetan edo urteka antolatzen dira. Orduan, gure ikasleak enpresetara joaten direnean, goizeko 8:00etan marrazketa, 9:00etan kalitatea, 10:00etan lantegiko lanak eta 11:00etan automatismoa egiten al dituzte? Ez. Zertan ari dira enpresetan? Proiektu bat aurrera eramaten. Orduan, zergatik jarraitzen dugu eskoletan ordutegi horiekin? Horrek esan nahi du eskola guztiok ordutegia ez dugula ikaslearen ikuspuntutik egiten, baizik eta irakaslearen ikuspuntutik, eta hori arazo bat da".

Eredu tradizionala





“Gure ikasleak enpresetara joaten direnean, goizeko 8:00etan marrazketa, 9:00etan kalitatea, 10:00etan lantegiko lanak eta 11:00etan automatismoa egiten al dituzte? Ez. Zertan ari dira enpresetan? Proiektu bat aurrera eramaten. Orduan, zergatik jarraitzen dugu eskoletan ordutegi horiekin? Horrek esan nahi du eskola guztiok ordutegia ez dugula ikaslearen ikuspuntutik egiten, baizik eta irakaslearen ikuspuntutik, eta hori arazo bat da”.

Proiektu zailagoak, eduki sakonagoak

Landu beharreko edukiak modu praktikoa lantzen dituzte, eta errealitate hurbilago. “Ikasketa progresiboa da. Dena ez dugu lantzen lehen proiektuan. Poliki-poliki goaz: adibidez, lehen proiektuan piezak, prozesuak eta planoak egiten dira; bigarren, planoak, hornikuntza, prozesuak, piezak eta kontrola; eta hirugarren, hori dena gehi denboraren estimazioa eta ekoizpen programazioa... Eta beti gehitzen. Bosgarren proiekturako dena sartzen dugu osorik”. Guztira, ikasturte batean zazpi proiektu egiten dituzte.

Ikasturte hasieran, ingurune enpresek mekanizazio bidezko produkzioa nola aurrera eramaten duten ikusteko beta ematen zaie ikasleei. “Lehen, enpresetara bisitak teoria ikasi ondoren egiten genituen, aplikazioa ikusteko. Orain, ostera, hasieran egiten dira eta bisita dezente egiten dira, bizkarrezur hori bere osotasunean nola gauzatzen den ikustera, testuinguruak ikustera”.

Ikasturtearen hasieran indartze saioak egiten dituzte. “Teorikoki denak datoz maila berdinarekin, baina praktikan ez. Beraz, lehen bi egunetan ikaslearen maila ebaluatzen dugu, eta ondorengo hiru egunetan indartze saioak egiten ditugu”.

Jarreraren garrantzia

Horrez gain, azken bi urte hauetan garatutako esperientzia honetan, ikaslearen jarrera lantzeak berebiziko garrantzia hartu du. Enpresek, jarrerari garrantzi handia ematen diete eta jarrerazko edukiei ez zaie behar besteko garrantzirik ematen eskolan. Horregatik, ikasleak ebaluatzerakoan garrantzia du eguneroko lanak. “Azken esprint horretan gauza asko gainditzen dira eskolan. Enpresetan, aldiz, ez. Ez dugu ezagutzen enpresarik irailean hasi eta abendura arte ezer egin gabe egoten denik, gero dena presaka egin eta urte bukaeran entregatzeko. Enpresa batean ezin badugu hori egin, zergatik irakasten diegu hori eskolan?”

Ebaluatzeko orduan, jarreraren inguruan nota ugari pilatzen dira ikasturte bukaerarako. Izan ere, egunero jartzen zaie ikasleei jarreraren inguruan nota, eta gero, urte bukaeran, batez bestekoa ateratzen da. Eta gainditzeko, 9ko bat behar da, ez da gutxi. Emaitza orokorrari dagokionez, jarreraren nota % 40 da, proiektuaren txostena eta piezak % 30, eta azterketarena % 30. Beste horietan, 5ekoarekin nahikoa da. Irizpide horien bitartez egituratzen da ikaslearen ebaluazioa. ●



Hizkuntz ereduak: goazen harira



Josu SIERRA ORRANTIA

HEZKUNTZAN ADITUA

Asko hitz egin eta idazten ari da egunotan EAEn hizkuntz ereduaren erreformari buruz. Proposamen ugari daude baina ia denak mugatzen dira (salbuespenak salbuespen) eredu bakar bat izan behar den edo ez, zer-nolako hizkuntz portzentajeak izan behar dituzten eta ingelesa edo gaztelania zein mailatan edo neurritan kontuan hartu behar dituzten esatera.

Oso gutxi irakurri dut, ordea, benetako eztabaidagaiak: ikasleek lortu behar dituzten hizkuntz helburuak.

Gaur egun, hezkuntza munduan, gero eta garbiagoa da ikasleek lortzen dituzten kompetentzien garrantzia. Arazoa ez da zer eman edo irakatsi behar den, edota nola eman edo irakatsi behar den, baizik eta ikaslea zer egiteko gai den amaieran.

“Eskolatzearen azken helburua ikasleen prestakuntza da, eskolaren testuingurutik kanpo ere modu efektiboan eragin dezaten. Honek zera dakar: ezagutza, trebetasun eta kompetentzien eskurapena eta horiek bizitzaren egoera errealetara transferitzea” (Eurydice. Key Competences. Survey 5. European Commission. 2002).


Europar Batzordearen definizio hori hizkuntzen eremura ekarri, garbi dago hizkuntz kompetentzia dela interesatzen zaiguna lehenik eta behin, hau da, ikasleak hizkuntzaren ezagutza, trebetasuna eta kompetentzia eskura ditzala eskolaren testuingurutik kanpo ere modu efektiboan eragiteko.

Bigarren eta hirugarren hizkuntzen arloan definiturik daude kompetentziak

Gure zorionerako, **eskolan ikas daitezkeen hizkuntzen arlo honetan**, definiturik daude kompetentziak eta mailaketa garbi bat egin dago **Europako Erreferentzia Marko Bateratuan** (Europako Kontseilua).

*“Europako Erreferentzia Markoa Europa osorako hizkuntz egitarauak, kurrikulu orientazioak, azterketak, testu liburuak eta abar prestatzeko **oinarri bateratua da**. Hizkuntza bat ikasten ari diren ikasleek hizkuntza hori komunikazio tresna gisa erabili abalitzateko **zerikasi behar duten deskribatzen du Markoak**, era integratzailean, eta orobat azaltzen du ikasleek zer ezagutza eta trebetasun eskuratu behar dituzten eraginkortasunez jarduteko”* (13. or. HABE. Erreferentzia Markoa).

Ikus dezagun bada, zer-nolako kompetentziak deskribatzen dituzten Markoan. Markoaren mailak A1etik C2ra doaz. A mailak oinarrizko erabiltzaileari zuzenduta daude. B mailak, berriz, independentziaz mintzo dira, eta C, azkenik, erabiltzaile gaituari buruzkoak dira.



Logikaz pentsaturik, has gaitzen esaten gure **irakasleei** C1en pareko maila (2. HE) eskatzen diegula, EGA hain zuzen ere, eskolak euskaraz eman ahal izateko. Bestalde EGARA aurkezteko gutxieneko adina 17 urtekoa da. Beraz, C mailak ez dira egokienak derrigorrezko irakaskuntzaren amaierako ikasleei eskatzeko, nire ustez.

Zalantza A eta B mailen artean egon liteke. Ikus dezagun Mintzamenaren arloko deskribapena, adibidez, pixka bat argiago jartzeko. Zergatik mintzamenena? Erlaziorako ezinbestekoa delako, hizkuntzak hitz egiteko ikasten baitira.

MINTZAMENA: ahozko elkarreragina

A1	A2	B1	B2	C1	C2
Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatze, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai aruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio truke labor-laburrak egiteko.	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaia batean gerta litezkeen egoera gehieni aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak...).	Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte edo lanbide erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen. Badakit neure ideia eta iritziak zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebeziaz lotzen.	Gai naiz ahalegin handirik egin gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut, gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.

A2 mailak honako hau dio: “Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio truke labor-laburrak egiteko”. Ez dirudi, beraz, oso maila egokia denik, ez eta legearen interpretazio normal batekin bat datorrenik ere (gero ikusiko dugu).

B2 mailak, berriz, honako hau dio: “Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko... Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko...”.

Hori bai, hori maila egokia izan daiteke derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran helburu gisa markatzeko, eta hala pentsatzen zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak B2 mailaren ebaluazioa egin zuenean. Gero, astakeriak ere esan dira: B2 maila baxua dela, C2 eskatu beharko litzaiekeela ikasleei, eta horrelako perlak. Logika eta errealismo pixka bat, jaun-andreok.

Baina goazen orain Markoa eta indarrean dauden legeek diotena erkatzera.

Indarrean dauden legeen interpretazioa

Zerbait eskatu beharko banie legebiltzarkide jaun eta andreei, honako hau izango litzateke: interpretatu indarrean dauden legeak Erreferentzia Marko Bateratua kontuan hartuta. Edo beste lege bat egin Markoa kontuan hartuz. Edo ahalbidetu Hezkuntza Saila Markoaren mailak interpretzeko.

- **Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarrizko Legea, 1982ko azaroaren 24koa** 17. atala: *“Jaurlaritzak,*

ikaslegoari nabitaetzeko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaz emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, ...”.

- **1993ko otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren Legea** (III. Idazpuruko 18. atala): *“Euskara eta gaztelania nabitaetz sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezzen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetako izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezten”.*

Ez da zaila ikustea bai kasu batean (*erabiltzeko adina ezagutuko...*) eta bai bestean (*ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa...*) A2tik B2ra bitarteko maila bati buruz ari direla **gutxienez**.

Hizkuntz helburu zehatzak eta guztientzat

Ez da gutxietsi behar hizkuntz helburu argiak ezartzearen garrantzia. Irakasle orok jakin behar du nora iritsi behar den bere **ikasleen hizkuntz kompetentzia** eta guraso guztiek ere jakin beharko lukete eskolak zein helburu duen hizkuntzei dagokienez.

Orain, gauza bat da helburua zehaztea, eta beste bat lortzea.

Jakin badakigu, egin diren azken ebaluazioen arabera, proposatutako

euskararen B2 mailara iristen diren D ereduko ikasle erdaldunen kopurua % 48 inguruan ibiliko direla, ebaluazio horretako lagina aintzat hartuta (ez populazioarena, aldagai hori ez baitzen estratifikatu). Baina badakigu maila hori lortzeko lanak ikasgeletan egingo baidira, D ereduko ikasleriaren % 23k nahiko erraz lortuko lukeela ere (gainditzearen atarian geratuko lirakeelako).

Baina B ereduan emaitzak eskasagoak dira eta An berriz... are eskasagoak, suabe esategatik. Hori da helburu garbi batekiko gaur egun lortzen dena, eta ez da gutxi.

Hona hemen galdera: posible al da hizkuntz kompetentzia berberak lortzea hizkuntz eredu desberdinekin?

Eredu bakar baten barruan ere, lortzen diren kompetentziak desberdinak dira hainbat faktoreen eraginez, matematikarekin edo zientziekin gertatzen den moduan: ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturala, inguruko euskaldun kopurua, ikastetxearen hizkuntz osaketa eta antolaketa, irakasleak eta metodologiak,...

Ama hizkuntzarekin gertatzen ez den moduan, bigarren eta hirugarren hizkuntzetan izugarriko aldeak sortzen dira ikasleen emaitzen artean.

Goiko galderara bueltatuz, gaur egun dauden eredu desberdinekin **eskolan soilik** antzeko kompetentzia lortzea praktikoki ezinezkoa da, nire us-tez. Beste kontu bat da eskolatik kanpo lan egiten bada.

Ondorioz, honek arazo latz baten aurrean jartzen gaitu: ezarri behar al dugu lortu beharreko maila edo konpetentzia minimo jakin bat guztientzat, ala ereduaren (oraingoak edo berriak) araberako helburua zehaztuko dugu?

Aurreko legeak egin zirenean helburu berberak zehazten ziren (nahiko orokorrak baziren ere) baina gero, garai haietako egoera ikusita, errealismoz jokatu eta eredu desberdinak sortu ziren, erabakia gurasoen eskuetan utziz. Hogeitapiku urte geroago gurasoek garbi ikusi dute zer den egokiagoa eta irakasleriaren gehiengoak prest dugu gizartearen eskari horri erantzuteko.

Nire ustez, edozein erabaki hartuta, garrantzitsuen **helburuak kasu guztietan zehaztea da**. Alde batetik inor ez engainatzeko (gurasoak kasu) eta bestetik nork zer betetzen duen jakiteko eta aldaketak egiteko. Gurasoak izan behar badugu erabakitzaileak, ez gara tontoak, eta orain arteko bidetik jarraituko dugu indar gehiagoz.

Hizkuntz helburuak eta eskolaren mugak

Bada ordua esateko, bide batez, eskolak, edozein eskolak, ahalbide mugatua duela hizkuntzen irakaskuntzan, hemen eta Filipina irlatan.

Ez naiz soziolinguistikaz ari, baizik eta glotodidaktikaz. Hizkuntzak ikasteko bide naturala jatorrizko hiztunekiko interakzioa da. Zenbat eta interakzio gehiago eta esanguratsua goa hobe. Zenbat eta premia gehiago izan hizkuntza (ondo) erabiltzeko hitz egiten dakien norbaitekin, are eta errazago ikasiko du ikasleak. Baina prozedura hori eskolan erabiltzeko muga izugarriak daude, eskola ez delako hizkuntza bat ikasteko tokirik hoberena. B eta D ereduen metodologia **murgiltze metodologia** da eta bere helburua hizkuntzen ikas prozesu naturalera hurbiltzea da, baina eskolaren zeregina ez da hizkuntzak irakastea soilik, eta gure eskola asko eta askotan ez dira egoera naturalerako baldintzak aurkitzen.

Alde batetik, gure ikasle erdaldun askok eskura duten jatorrizko (?) hiztun



bakarra irakaslea izango da. Eta irakaslearekin gelan ez dira elkarrizketan aritzen normalean edo ez luzaroan. Irakasleak hitz egiten du gehienetan edota hark egiten ditu galdera gehienak. Ikasleen zeregina askotan entzutera eta "erreakzionatzera" mugatzen da. Gero, ikaslea "behartuta" dago bere ikaskideekin hizkuntza praktikatzera, dakiena jakina, eta hor sortzen da *pidgin* edo jerga moduko hori, ez euskara eta ez espainola ez dena (normala ikas prozesu honetan).

Beraz, zer da "euskalduntzen duen eskola" edo "ingelesten duen ikastetxea"? Zein da hori? D eredu duen eskola beste modu batera? Zein modutara? Zer esan nahi du euskalduntzeak? Jatorrizko hiztun batekin normal eta zuzen komunikatzeko gaitasuna? Zer bait gehiago? Markoaren terminoetan definitu beharko genuke zertaz ari garen eztabaida zentratzeko.

Oso ondo neurtu behar dira hitzak **orain arte milaka irakaslek egindako lan izugarria, borondatezkoa askotan, mesprezatu nahi ez bada** (batzuek egin duten moduan). Hezkuntza sistemari egin zaizkion kritika batzuk bidegabeak dira eta ez dute lortutakoa baloratzen, gabeziak soilik ikusten dituzte, dena porrota izango balitz bezala. Nork egin du Hezkuntza Sistemak baino gehiago Erkidego honetan euskara bultzatzeko?

Eskolaurretik DBHra guztientzat D eredu ezarri arren, eskolak bere mugak izaten jarraituko du, eta euskara ikasi nahi ez dutenekin edo sekula erabiltzen ez dutenekin ez dugu jakingo zer egin. Metodologia izugarri hobetzen badugu ere (eta bada premiarik,

murgiltzeak ez baitu ondo funtzionatzen etorkin batzuekin, adibidez), helburu argiak markatuz, ikasleak ez badu eskolatik kanpo jatorrizko hiztunekin **ere** hitz egiten, ez du askoz gehiago ikasiko. Gainera, bere moduan gaizki hitz egiten duten pertsonekin asko hitz egiteagatik ere, ez du hizkuntza hobetuko (kontuz era honetako ekitaldiak antolatzerakoan). Okerrago, akatsak ontzat eman eta normalak irudituko zaizkio (fossilizazioa).

Ez dago ikastetxe frantses, aleman edo ingelesik ikastetxean ikasitakoarekin konformatzen denik (gu berriz, bai): ikasle guztiek egin behar dituzte egonaldiak hizkuntza naturala hitz egiten den tokietan. Gutariko batzuek, berriz, euskalduntzen duen eskolaren ideia zabaltzen dute, bertan orain gutxi egingo balitz bezala eta eskolatik kanpo egin behar dena bigarren mailakoa balitz bezala. Eskola ez da nahikoa etxetik euskalduna ez den haur bat "euskalduntzeko" (gutxienez ikasle baten hizkuntz konpetentzia maila altu batera eramateko).

Zer egin orduan? Udalekuak, egonaldiak familietan, asteburuetak ekitaldiak, girotzuek, kirol taldeak mintza-eskola bihurtu, normalkuntza planak ikastetxeetan... gizartearen esparru euskaldunak sortu... Gauza asko egiten dira jadanik! Sakondu egin behar, ez dago miraririk, ez hemen, ez Katalunian, ez Irlandan edo Kanadan, nik dakidala.

Eredu bat, bi ala oraingoak?

Erantzuna ez da erraza. Nik esango nuke aukera bakoitzak bere arazoak dituela.

Eredu bakar batera bagoaz, badirudi bi proposamen mota plazaratu direla: bat, oraingo D eredia eta bi, praktikan B ereduaren antzeko bat izango litzatekeena, elebidunagoa edo eleanitzagoa. Nola ez den plazaratzen bakoitzean zein den hizkuntz helburua, zaila da eztabaidatzea, baina garbi dago emaitzak oraingo D eta B ereduaren antzekoak izango liratekeela.

Egia esan, horretarako ez da aldaketa handirik behar. Oraingo ereduak abantailak dituzte alde horretatik eza-gunak direlako eta garbi dago gurasoen D eta B ereduarako joera. Latzena A ereduaren egoera da. Horrek ez du legegik dioten helburua betetzen, eta ezta beteko ere. Galdera honako hau da: akabatu egin behar da ala hiltzen utzi? Lortu beharreko mailak finkatuko balira, guraso gehienentzat ez luke erakar-garritasunik izango. Arazo bakarra zera da: etorkinen ghetto bihurtzea eta politiko batzuek abagune hori bailatzea. Etorkinek, aukera badute eta inork ez badie kontrakorik aholkatzen, errazena omen dena aukeratu dute. Nire ustez, A eredia edo hobetu egin behar da, edo besteen abantaila sendotu (ziurtagiriak lortzeko posibilitatea...), baina dagoen moduan ghetto bat bihurtu daiteke.

Garbi dudana zera da: galtzeko ez nukeela aldaketarik egingo. Oraingo egoeran baino emaitza kaskarragoak lortzeko edo oraingoak mantentzeko, ez nuke ezer aldatuko. Aldaketak bai, baina hobetzeko soilik.

Hirugarren hizkuntza oztopo?

Euskal hezkuntza sistemak ezin dio gizartearen atzerriko hizkuntzaren eskariari uko egin. Hori da errealitatea eta ez dago atzerabuelarik. Gure seme-alabek ingelesa, frantsesa eta agian mandarin edo errusiera beharko dutelako lana aurkitzeko edo ikasteko. Eztabaida honek kaltetu besterik ez luke egingo gaurko eredu indartsuenen matrikulazioa. Beste arlo batzuetan ditugun gabeziak hobetzeari ere ezin diogu uko egin (eskolan dena ez baita hizkuntza): zientzietan, kimikan edo geo-

metrian kasu. Gainera, dauden ikerketek diote ez diola ingelesak euskarari inolako kalterik egiten eskolatan.

Denbora ez da dena hizkuntza baten irakaskuntzan. Gutxieneko denbora bat behar da, baina hona hemen galdera: **egunean zenbat minutu suertatzen dira esanguratsuak euskararen ikaskuntzan gure gaurko gela eta eskolatan?**

Soluzioa metodologia fintzea da eta dagoen denbora optimizatzea, ingeleserako edo zientziak indartzeko erretarteak utziz.

Ziurtagiri boluntarioak: motibazio bat gehiago

Hezkuntza Sailak B2 mailaren ebaluazioarekin batera proposamen interesgarri bat plazaratu zuen: hizkuntz ziurtagiri boluntarioak egitea DBHn. Benetan ez da txantxetako neurri honen eragin dezakeen hizkuntzekiko motibazioa.

Ikasleak DBH amaieran bere ahalegina sarituko duen ziurtagiri bat eskuratu ahal badu, eskolaz kanpoko epaimahai batek emanda jakina, motibatua sentituko da eta hizkuntza ikasteko beste arrazoi bat ikusiko du. Aurrerago EGA lortzea ere erraztuko lioke gainera, seguru asko.

Ebaluazioaren garrantzia

Hizkuntz ereduaren arloan, hain zuzen ere, ebaluazio dezente egin izan dira eta egiten dira, beti izan da kezka bat Sistemari. Ikusi nahi ez duenak ez du ikusiko, baina egindakoa hor dago eta ez zaio inoiz ebaluatzeari utzi behar. Helburuak definitzen badira, are garrantzitsuagoa da ebaluazioa, eta ikas-

tetxeen eskuetan uzten bada ereduaren antolaketa, oraindik garrantzi gehiago hartzen du emaitzen eta eboluzioaren azterketak.

Hezkuntza sistemarik garrantzitsuenetan ministerioek gero eta autonomia gehiago bueltatzen diete ikastetxe edo hezkuntza barrutiei, baina helburuak finkatzen dituzte eta urtero ebaluatzen dira emaitzak.

Ebaluazioen ondorioa zera da: ez da berdin euskara irakastea han edo hemen, baldintza hauetan eta haietan, ikasleri mota honekin edo bestearekin. Beraz “kafea guztientzat” da auzitan jartzen dena ebaluazioarekin. Hizkuntzen irakaskuntzan ere, gehien behar duenari gehiago eman beharko zaio, nik uste. Horrek, gainerako eskola errendimenduetan bezala, erronka izugarri baten aurrean jartzen gaitu: baliabideen banaketa asimetrikoa.

Alderdiek izango dute hitza Legebiltzarrean, baina aukera galdu bat izango litzateke **helburuei buruz hitz egingo ez balitz**. Ezin da eredu berri baten “antolaketa” aurkeztu helburuak markatzen ez badira, **ereduak birtartekoak dira, zerbait lortzeko tresna**. Ikastetxei ere autonomia eman nahi bazaie arlo honetan, are garrantzitsuagoa da helburuak ondo finkatzea eta ebaluatzea. Euskararako markatzen diren helburuak baxuak badira, kontuan hartu gaztelania eta ingelesa konprometitzen ari direla erabaki horretan. Ala maila altuagoa eskatuko dugu ingelesean euskararen baino?

Ez dakit ekarpen hauek eztabaidarako balioko ote duten, baina hori izan da nire asmoa behintzat. ●



Zer baldintza behar dira ikasleek gustura ikasteko



Denok daramagu ikaskuntza prozesua gure barnean, baina egunerokotasunean inguratzen gaituzten baldintzek zeresan handia dute gure garapen pertsonalean. Gizartean eta eskolan, sarri, gure ikaskuntza desioa eta garapena mugatzen duten baldintza askorekin egiten dugu topo.

Hezkuntza sortzaileak pertsona ororen ikaskuntza errazteko baldintza zehatzak proposatzen ditu. Korrante pedagogiko guztiek bere jatorrian proiektu, ideologia edo pertsona bat dute. Hezkuntza sortzaileari dagokionez, Bigarren Mundu Gerrara begirada itzuli, eta Arno Stern-en esperientzia datorkigu burura.

Familia burges judu batean jaio zen Arno, eta iheslarien eremu batean haur talde bat zaintzea egokitu zitzaion. 19 urte zituela eta ezagutza handirik izan gabe, poliki-poliki baldintza berezi batzuk sortu zituen haur talde hartan. 20 metro karratuko gela txiki hartan margokaxa bat agertu zen, eta Arnok ez zekien zer egin haiekin. Gelaren erdian zegoen mahaiari jarri zituen. Hala, behin, haur batek mahaiari denek margotzeko leku nahikorik ez zegoela esan



Jose Miguel CASTRO

KANTABRIAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA
BILBOKO ESPRESIO TAILERREKO KOORDINATZAILEA

zion. Orduan, Arnok paperak horman jarri zituen, bakoitzak espazio gehiago izateko xedez. Beste behin, beste haur batek pintzel bakoitza garbitzean pintura gehiegi xahutzen zela esan zuen, eta orduan, Arnok pintzel bakoitza kolore bakar baterako erabiltzea proposatu zuen. Hala, haurrak izan ziren jolasaren arauak eta antolaketa pausoak eman zituztenak. Eta Arno, ia konturatu gabe, garrantzi handiko rol bat hartzen joan zen, laguntzaile eta zerbitzari funtzioa. Urtebete pasa zen, eta bi gau-

zaz konturatu zen gaztea: bata, haur guztiek berdin margotzen zutela, eta bestea, haurrek eraldaketa nabarmena jasan zutela. Medikua ere zur eta lur gelditu ziren umezurtz haiengan elikadura berezirik gabe, terapiarik gabe eta sendagairik gabe gertaturiko aldaketa-ekin. Iragaitte hartan haur haiek seguruago eta sendago bihurtu ziren, horretarako baldintza aproposak izan baitzituzten.

Haur guztiek marrazki berberak egiten zituztela baieztatzeko aukera izan zuen beranduago, 60ko hamarkadan. Mundu guztian zehar ikertzen ibili zen, herrialde primitiboetan, eskolarik ez zegoen herrialdeetan, papera erabiltzen ez zen herrialdeetan... eta konturatu zen basamortuko haurrek, mendietako haurrek edo beste edozein lekutako haurrek antzeko marrazki egiten zituztela.

Horrek zera esan nahi du: ordura arte batzuen gaitasuntzat hartu zena, guztiena zela. Alegia, artista sena zutenen gaitasuntzat hartzen zena denok barnean daramagun gaitasuna zela. Haurrek ez dute soilik ikusten dutena margotzen, eta ez dute komunikatzeko

margotzen. Pertsona guztiok kode genetikoetan ditugun marrek marrazketa unibertuala osatzen dute. Hizketa bezala. Hori bai, haurrak hitz egiten ikasteko, gizarte batean bizi behar du, baldintza horiek behar ditu gaitasun hori garatzeko. Hala, marrazketaren katea askatzeko ere, baldintza egokiak behar dira.

Arnok, beraz, baldintza egokiak eman zizkion haur taldeari eta haur taldea modu liluragarrian garatu zen. Horrek gaztearen bokazioa indartu zuen eta Parisera joan zen. Bere tailerra ireki zuen, eta gaur egun, 82 urterekin, oraindik ere bertan dabil tailerrean lanean eta hezitzaileak prestatzen. Berak baldintza hauek ezarri zituen tailerra osatzeko: gelaren erdigunean mahai bat egotea, tresnak eskura izatea, pintzel eta margo bereziak izatea, 18 kolo-reko gama perfektua edukitzea, dena txukun zaintzea eta gunea bera elkar-gune atsegina izatea. Baina ez hori soilik. Hezkuntza sortzailearen korrontean, pertsona sendoak eraiki nahi ditugu, eta horretarako, baldintza hauek behar dira: talde barruko aniztasuna eta heterogeneotasuna, ikaskuntzaren epaiketarik ez egitea, lana jolas gisa ulertzea eta jardun berezia duen hezitzailea egotea.

Desberdintasuna, aberastasuna

Ikaskuntza modu honetan mezu sakon bat jasotzen da: desberdina zara. Ez duzu hori onartu besterik, eta zure desberdintasuna taldearen aberastasuna da. Norberaren ezaugarri bereizgarriak onartuz, bestea errespetatuko dugu.

Aniztasun hori onartu ostean sortzen diren harremanak ez dira harreman lehiakorak, sakonak baizik. Ez gara gehiago edo gutxiago, garenak gara, gure berezitasunekin eta gure garpenean. Hobeto ibiltzen al da 30 urteko pertsona bat 3 urteko haur bat baino? Hori esan al dezakegu? Bizidunak gara, eta garatzen ari gara etengabe. Beraz, ezin dugu esan hiru hilabete dituen haur batek ondo edo gaizki hitz egiten duen, ezta 9 hilabeteko haur bat 9 urteko beste bat baino okerrago ibiltzen den ere. Ez hobeto, ez okerrago. Des-

berdina da, eta une bakoitzean modu batera agertuko gara. Aniztasuna dagoen lekuan, alderaketak ez du lekurik.

Aniztasun horretan, adibidez, gure tailerrean helduak eta haurrak daude. Haurrek helduei jolasteko baimena sentitzen laguntzen diete, mugak gainditzeko baimena, ikertzeko baimena... eta era berean, helduek hurrei beste gauza batzuetan laguntzen diete, eta hala, pertsona bakoitzak bere ekarpena egiten dion gune aberatsa sortzen da.

Hezitzailearen papera

Arestian aipatu moduan, hezitzailearen lanak laguntzea izan behar du, zerbitzatzea. Arno Sternek ez zuen boterea erabiltzen eta ikasleak zerbitzatzen zituen, lagundu. Arazoak sortzen zirenean, haiek konpontzeko baliabideak errazten zituen. Adibidez, haur bat bere paperera iristen ez bazen, orduan aulkia bat jartzen zion.

Hezitzailearen rola ez da irakastea. Izan ere, ikaskuntza denongan dago eta ez dugu behar inork kanpotik esatea zer egin behar dugun, ez eta nola ere, gure barnean daukagu. Ez dugu ez ideiarik ez instrukziorik behar. Gure beharra epaiketarik ez jasotzea da.

Errespetatzen gaituzten eta gu geuzizaten uzten diguten hezitzaileak behar ditugu. Guk nahi dugun norabide horretan garatzen lagunduko digutenak, eta ez beraiek nahi duten bidera eramango gaituztenak.

Edozein pertsona da hezitzaile: laguna, aitona, alaba... Dena dela, ez badu bere buruan sinesten, ezingo die besteei lagundu beraien buruan sinesten. Hezitzaileak hazten ari den pertsona izan behar du, gaitasun guztiak dituela sinesten duena. Pertsona orok ikaskuntzak egin ditzakeela sinetsi behar du. Guztiok programa genetikoan dugun zerbait denez, denok gara gai, baina betiere bakoitzak bere desberdintasunekin, modu desberdinean garatuko du bide hori. Eta bizitza guztian zehar ikasiko dugu, jaiotzatik heriotzaraino. Bizitzan zehar beti dugu ikasteko eta hazteko grina, aipatutako baldintzek inguratu bagaituzte.

Hobeto ibiltzen al da 30 urteko pertsona bat 3 urteko haur bat baino? Ez hobeto, ez okerrago. Desberdina da, eta une bakoitzean modu batera agertuko gara. Aniztasuna dagoen lekuan, alderaketak ez du lekurik.



Denok gara desberdinak, baina gizarte honetan zaila da desberdintasun hori erabiltzea eta modu positiboan bizitzea. Ez eskolak ez gizarteak ez du hori errazten. Hasteko, eskolan adinaren arabera multzokatzen gaituzte, denok programa komun baten menpe gaude, eta lan erritmo berbera jasan behar dugu guztiok. Eskolak ez ditu gure desberdintasunak, ez eta gure behar askotarikoak ere, kontuan hartzen, eta guztiok bide berera bideratzen gaitu. Gutako gehienontzat, ordea, markatzen diguten bide hori zentzugabea da. Norberak bere desberdintasuna erabiltzeko aukera izan behar du, bere bidea egiteko eta desberdina izateko eskubi-dea.

Ikaskuntza jolasa da

Jolastea ikertzea, sortzea, lana egitea... da. Desberdina da gauzak egitera behartzen gaituztenean sortzen zaigun sentimendua, edo zeregin horretarako gogoia pizten zaigunean sentitzen duguna. Imajinatu hondartzan metro kubiko bateko zuloa egitera behartzen zaituztela. Nekeza izan daiteke. Imajinatu, oster, ekintza berbera zure haurtxoarekin egiten duzula, jolasten. Ziur aski askoz gozagarriagoa izango da.

Eskolan, sarri, ikasle guztiok liburu bat esku artean genuelarik, bakoitza al-

Haurrak zientzialari hutsak dira. Jolasa zientzia da. Jolasa



ikaskuntzarako naturak ematen digun tresna botereetsuena da.

de desberdin batetik hasten ginen irakurtzen, norberari jakin-mina pizten aldetik: bati azken orriko marrazkia gustatzen zitzaion, besteari erdiko kapitulua, besteari azala eta azkenari paragrafo ugaritan aurkitutako esaldiak. Baina irakasleak guztiok lehen orrira bideratzen gintuen. “Ea! Hasi hasieratik”. Bakoitzak bere jakin-minak zeraman alde irakurri ordez, derrigorrez eta gogoz kontra irakasleak erabakitakoa egin behar genuen guztiok: liburua hurrenkera berean eta behar bezala irakurri.

Unibertsitateko ikasleek ere zenbat aldiz irensten dituzten gogoz kontra orrialdeak. Aurreko gauean ikasi, irenstei eta azterketa egunean bota. Eta bota ondoren, ahaztu. Ostera, guk aukeratzeko dugunean zer ikasi, jolas bat da eta gustura egiten dugu. Kezka pizten digun gai baten inguruan liburu potolo bat aurkitu eta gustura irakurtzen dugu, eta ikasitakoa ez zaigu hain erraz ahanzten. Hori da jolastea. Leonardoda Vincik hilerrira joan eta hilotzak lapurtzen zituen bere lehen anatomia ikerketak egiteko. Haurrak bere panpina apurtu eta tripak ateratzen dizkionean, gauza berbera egiten ari da. Baina hori heldu batek egiten duenean disezioa egitea esaten diogu. Haur batek egiten badu, ostera, barrenak ateratzen ari da. Arkimedes igerilekuan jolasten ibiltzen zen, elementu guztiak uretara botatzen eta ur azpian zer gertatzen zen ikusten. Hala jabetu zen gero Arkimedesen printzipioa izenez ezagutzen dugun horretaz.

Haurrak zientzialari hutsak dira. Jolasa zientzia da. Jolasa ikaskuntzarako naturak ematen digun tresna botereetsuena da. Historian zehar, gizaterian nabarmendu diren zientzialariak askotarikoak izan dira, desberdinak beraien artean. Baina guztiok dute zer bait komunean: jolasteko gaitasunari eutsi diote. Zer uste duzue egiten zuela Einsteinek energia, atomoak eta abar nahasten zituzten?

Zaragozan, zoru garbigailua asmatu zuen Manuel Jalon-en fabrika dago. Bertan ikus daitezke langileak kanpoko berdegunean oinez, harritxoekin jolasten, eserlekuetan erdi lo edota zeruari begira. Horiak fabrikako langilerik sortzaileenak dira, beraiek egingo dute lan. Horregatik, ezin ditu presionatu, ez eta programa zurruntara behartu ere. Zertan uste duzue zebilela Newton grabitatearen printzipioaz jabetu zenean? Ziurrenik sagarrondo baten azpian, hatza sudurzuloan sartzen, gainetik sagar bat erori zenean. Une hartan bertan bere ama handik igaro izan balitz eta “aizu seme, zer egiten duzu hatza sudurzuloan sartzen?”, esan balio, Newton ez zen grabitatearen printzipioaz jabetuko.

Esan nahi dudana zera da: benetako ikaskuntza sakona, gure kulturarekin eta interesekin dugun inplikazio emozionalak zehazten duela.

Azaldutako baldintza hauek xumeak dira, baina gizartean eta eskolan ditugun baldintzen aurkariak dira. Gure ikaskuntza beti da epaitua. Eta epaitzen gaituztenean, beldurra sortzen zaigu. Eta kanpotik defenditu beharrean, barnetik egiten dugu, neuronalki, eta hala, gure portaera aldatzen joaten da. Orduan, garena baino baldarragoak garelako sinesten dugu.

Adibidez, argazki bat atera behar dugutenean, artega jartzen gara eta ez gara natural ateratzen. Gero, argazki hori ez zaigu gustatzen. Aldiz, lagun batek gu ohartu gabe urrutia gotik argazki bat atereaz gero, ziur aski naturalago aterako gara eta argazkia gehiago gustatuko zaigu.

Edozein epaiketa ñimiñok, beldur

minimo bat sortzen digu. Epaiketa maximoa, beldur maximoa, defentsa maximoa. Inhibizioa. Gure burmuineko artxiobotara iristeko bide neuronalak arakatzeko ezintasuna. Gure ikaskuntza prozesu guztia epaiketetan oinarritu izan da. Ez dugu hautatzeko eskubiderik izan. Gizarte beharrei erantzuten dieten kanpo logiken bitartez erabakitzen da guk egin behar duguna. Ez dira gure behar pertsonalak begiratzen. Nola interesatuko zaigu ikaskide guztioi gauza bera une berean? Ezinezkoa da. Ezin al daiteke ikaskuntza beste modu batera planteatu? Irakasle batzuei oso konplexua iruditzen zaie. Esate baterako, historia ikasteko orduan, ziur aski pertsona bakoitzak gauza desberdin baten historia ikasi nahi izango du. Zergatik ez utzi bakoitzari bere norabide pertsonala eta bere ibilbidea zeharkatzen, benetan interesatzen zaiona hori bada? Adibidez, historiaren barruan oso gauza desberdinak ikas daitezke. Eta bakoitzak bere ekimena izan dezake gauza bat ikasteko. Hezitzaile gisa, kontrola eta boterea galduko ditut ez badut lana epaitzen. Nire lana, ikasgelak zabaldu, liburutegia zabaldu, erregistroa lagundu... edozer gauza izan daiteke. Baina botere praktikarik gabe, eta ikasleei hormak eraisten lagunduz.

Eta zer gertatzen da norbait bere ikerketan murgilduta eta erabat inplikaturik dagoenean? Beste baten interesa pitz dezakeela, hots, kutsadura.

Hala lan egitera ohitzen denak, jakin-mina berreskuratzen du, eta dena ikasteko gogoia pizten zaio. Jakin-mina piztu eta hori asetzeko baimena ematen badiogu geure buruari, geure haurtzaroa berreskuratzen dugu. Geure jakin-mina. Ikertzeko gogoia. Dena ikasteko gogoia. Denetik jakiteko gogoia. Sendo eta edozein ikaskuntza egiteko prest sentitzen gara. Edozein norabide-tan. Gure bizipen pertsonalak izango dira bata edo bestea ikastea hautatzera eramango gaituztenak. Ez dugulako dena ikasteko denborarik eta nahiago dugulako hura bestea baino. ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urtarrila

berriak

Galtzagorrik areto berria inauguratu du Bergarako liburutegian

Urtero bezala, Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura sustatzeko Elkarteak areto literario bat jarri du martxan: **animaliek hizketan zekiten garaian**. Alegiak oinarri dituen aretoa da eta herriz herri ibiliko da urte osoan zehar.

Literaturan animaliek izandako garrantzia azpimarratu nahi du areto honek. Izan ere, literatur tradizioan animaliak asko erabili izan dira sentimenduak aztertzeko, aurkezteko eta jarrera ereduak eskaintzeko. Oraingo honetan, Galtzagorrik alegia berriak sortu ditu propio, areto literarioan haurrek beren magia bizi dezaten. Alegia horien bitartez, hainbat jolasetan eta proposamenetan murgiltzeko aukera emango zaie. Jolasteko, liburuak ukitzeko, idazteko, irakurtzeko, abesteko, antzetzeko, marrazteko... aukera izango dute.

Galtzagorriko dinamizatzailer baten gidaritzapean, haurrek saio bat jarraitu ahal izango dute. Saio horietan, alegien bitartez sentimenduak esperimentatzen lagundu nahi zaie haurrei, eta baita



literaturaz eta hizkuntzaz modu ludikoan gozaten ere. Bide batez, literaturaz letasuna suspertzea ere badu helburu. Bereziki Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako saioak dira aipatutakoak.

Hona hemen aretoak jarraituko duen ibilbidea urte honetan:

- Bergarako liburutegian: urtarrilaren 15 arte.
- Ordiziko liburutegian: martxoaren 5etik 11ra.
- Legazpiko liburutegian: martxoaren 19tik 31ra.
- Oñatiko liburutegian: apirilaren 23tik 29ra.
- Tolosako haur liburutegian: maiatzaren 2tik 13ra.

Ikerbasque, ikertzaile eta zientzialarien topaleku berria

Eusko Jaurlaritzak Ikerbasque Euskal Fundazioa sortu du eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpean egongo den erakundea izango da. Ikerketaren eta ezagutza zientifiko eta teknologikoaren sustapena eta garapena laguntzeko asmoz sortutako erakundea da. Lehen urtean 100 ikertzaile jardungo dira bertan eta egoitza Bilbon izango du. Ikertzaile eta zientzialari sendotuak erakarri nahi ditu, eta horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan erreferentzia bihurtu nahi du.



Abenduaren 17an ospatu zen Bilbon BIGEk antolatutako **12 ordu euskaraz** eguna. Goizeko 10:00etatik gaueko 10:00ak arte euskaraz egindako ikuskarien maratonia egin zen, mota guztietako ekintzak, ikuskizunak, jolasak eta kontzertuak izan zirelarik.

Ikastaroak

* **Ahozko hizkuntzaren ebaluaziotik ikasgelako programaziora**. **Noiz**: 2007ko urtarrilak 10, 17, 24 eta 31. **Non**: Uhartan, EIBZren egoitzan. Antolatzailea: EIBZ. Informazio gehiago: www.pnte.cfnavarra.es/eibz

* **Berriazko lexikoa**. **Noiz**: urtarrilak 9, 16, 23 eta 30. **Non**: Uhartan, EIBZren egoitzan. Antolatzailea: EIBZ. Informazio gehiago: www.pnte.cfnavarra.es/eibz

* **Arreta gabeziari eta hiperaktibitateari buruzko jardunaldiak**. **Noiz**: 2007ko urtarrilak 26 eta 27. **Non**: Madrilan. ICSE fundazioak antolatuta, arreta gabezia eta hiperaktibitatea duten neska-mutulekin eskolan eta familian erabiltzen diren teknika ohikoenak landuko dira. Informazio gehiago: www.fundacionicse.com

* **iLearn Paris Forum 2007**. **Noiz**: 2007ko urtarrilak 30 eta 31. **Non**: Parisko Biltzar Jauregian. Antolatzaileak: iLearn Forum Ltd elkarte eta Ikasketa Birtualerako Europako Institutua (EifEL). Jardunaldian, hitzaldiak eta ikasketa birtualerako teknologien erakusketak egingo dira. Helburua eLearning alorreko adituak, bezeroak eta erosleak elkartzea da, ideiak, esperientziak eta ezagutzak elkarri trukatzeko. Informazio gehiago: Sally Moore, Tel. +33 450 7731 88, e-posta: sally.moore@wanadoo.fr, www.ilearnforum.eu

* **I. Ikerketa jardunaldiak: Heziketa linguistiko eta literarioa egoera eleaniztunetan**. **Noiz**: 2007ko urtarrilak 18 eta 19. **Non**: Bartzelonan. Antolatzailea: LLERA sarea. Jardunaldien helburua ikertzaileen, irakasleen, irakasle-trebatzaileen eta preskakuntza linguistiko eta literarioaren ikerkuntzan interesatuta dauden pertsonen arteko zientzia-trukea egitea da. Informazio gehiago: dewey.uab.es/didllengua/XIRE/xiresp/index.htm

Irakasle Eskolen eta etorkizuneko hezitzaileen funtzioei buruzko hausnarketak egin dira

Aldaketen atarian daude euskal hezkuntza eta irakaskuntza; batetik, barrutik sortzen diren proposamenen aurrean, eta bestetik, Europatik datozen “legeen” eraginpean. Hausnartzeko garaia da, eta horren isla dira han eta hemen antolatu diren jardunaldiak. Aldaketen aurrean, euskal irakaskuntzak zer-nolako bidea hartu behar duen da hausnarketa guztien gakoa.

Lehenengo aldiz, Euskal Herriko Irakasle Eskoletako irakasleak elkar-tzeko balio izan du **hik hasik** eta Irakasle Eskolek Donostian egindako **Irakasleen profila XXI. mendeko Euskal Herrian** jardunaldi-mintegiak. 60 lagun inguru bildu dira eta aipatutako eskole-tako irakasleekin batera, Pedagogia Fakultatekoak ere bai. Baita eskoletan dabilzan zenbait irakasle, ikasle eta hezkuntza erakundeetako kide ere.

Hasteko, egungo egoerari gainbe-girada bat emateko baliatu da topaketa. Horrela, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko hezitzaileen prestakuntza zertan den gogorazteko probestu da.

Ondotik, Abel Ariznabarreta Gas-teizko Irakasle Eskolako irakasleak egungo egoeratik abiatuta etorkizunera-rako erronkak aipatu ditu. Behin baino gehiagotan azpimarratu du geure go-goeta propioa egin behar dugula etorkizuneko hezitzaileen profila zehazte-rakoan. Baina hala ere, ahaztu gabe epeak jartzea ez dagoela beti gure esku.

Mariam Bilbatua MUko HUHEZI Fakultateko irakasleak martxan jarrita daukaten profil berria eta horri lotutako prestakuntza azaldu ditu. Hezitzailearen profil ekologikoa dute ardatz eta helburu; hots, zeregin profesional orokorra duena, gizarteari txertatua, hezitzaile-ikertzailea, kudeatzailea, ezagu-

tza duena, egiten dakiena, elkarrekin bizitzen edota lan egiten dakiena, hizkuntza konpetentziak dituen eta zenbait balio defendatzen dituen. Hori guztia lortzeko, metodologia berria dute martxan jarria: diziplinartean, arazo errealean, ezagutza teorikoan, konpetentzien garapenean, transmisioan eta talde lanean oinarritutako metodologia.

Aurkezpen horien ondorenegindako ekarpenentxandan, bildutako ia denek eman dute iritzia planteatu diren lau galderen inguruan: 1) Zein dira Haur eta Lehen Hezkuntzan edota DBHn ari den irakaslearen zeregin nagusiak eta lan eremuak?; 2) Gaurko egunean irakasleak non/zertan dauzka planteatuta erronka nagusiak? Maila horietako irakaslearen zeregin profesionala zein norabidetan ari da aldatzen?; 3) Zerk bereizten du Euskal Herriko irakaslearen izaera profesionala? Ba al du gure irakasle horrek berariazko ezagarririk? Zein dira ñabardurak?; eta 4) Hasierako formazioa zertan gaurkotu/eraldatu/egokitu beharko litzateke? Zein ezinbesteko oinarriekin hasi beharko lukete lanean irakasle berriek?

Ekarpen horiek denak bildu egingo dira eta aurrerantzean jardunaldi-mintegiak jarraipena izatea oso interesgarritzat jo dute bildutakoek.



Jatorria ezagutu eta etorkizunaz hausnartu

Bilboko Irakasle Eskolan **I. Hezkuntzaren Gaineko Berbaldiak** egin dituzte, eta gai bat hartu dute ardatz: *Ikuspegi soziokulturala Euskal Herriko hezkuntzan*. Bi arratsaldetan zehar aztertu eta eztabaidatutako gaiak izenburu bereko liburuan bildu dituzte.

Hezkuntzako lege berriek argia ikusiko duten une honetan, euskarazko irakaskuntzaren goi-beheak aztertea izan da antolatzaileen xedea, jatorria ezagutzeak aurrerapausoak ematen laguntzen duelako.

Paulo Iztueta EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleak euskal curriculumaren inguruan eraikitako diskurtsoak aztertu ditu, eztabaidagarriak iruditzen zaizkion hainbat puntu azpimarratuz.

Jaione Apalategi Nafarroako Unibertsitateko irakasleak tokian tokiko hezkuntza sistemek izandako aldaketak aipatu ditu. Zentzu horretan, aldaketa une honetan, hezkuntzako adituen esku-hartzea beharrezkoa dela dio hezkuntzaren garapenaren alde jokatzeko segidaz.

Jakes Sarraillet Bordeleko Erretoretzan Euskarazko ikuskariak euskal ikasketek Erregioen Europako Frantzia duten lekua izan du aipagai.

Araitx Uskola Bilboko Irakasle Eskolako “Ikasketa Plan Berrietarako” zuzendariodeak irakasle izateko ikasketak Europako eta estatuetako legeen ondoren nola geratuko diren azaldu du, nahiz eta oraindik behin betiko erabakiak hartu gabe egon.



Bagabiltza Behe-Bidasoaldeko gazteen topaketek elkar ezagutzeko balio izan dute



Behe-Bidasoako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen Euskara Elkartek topaketak egin dituzte lehenengo aldiz. Hondarribian elkartu dira zazpi ikastetxetako gazteak elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko.

Goiz bateko ekitaldi xume bezain interesgarriak bildu ditu denak, eta Iban Garate aktore gazteak gidatu du goiza.

Hasteko, ikastetxe bakoitzeko Euskara Elkartetako ordezkariak egiten dutenaren berri eman dute. Ondoren, Lur Korta Urtxintxako kideak “esketz” bat aurkeztu du, gazteei ligatzeko teknikak erakutsiz: itsusiaren teknika, begiradarena, txistosoarena, tangarena, galtzontziloaren marka erakusteararena... Euskarazko piropo zerrenda egiteko proposamenarekin bukatu da Lurren saioa.

Jarraian, Hondarribiko Udaleko Kattalin Noblia zinegotziak gazteen lana goraipatu du eta aurrera jarraitzeko animatu ditu. Bakoitzari kamiseta bana eman ondoren, hamaiketako batekin bukatu dira topaketak.

Elkar ezagutzeko topaketak

Goizak inguruko ikastetxeetakoak ezagutzeko balio izan die, bakoitzak egiten duenaren berri eman baitu.

Hondarribiko Talaia institutuan, esaterako, euskararen erabilera bultzatzeko asmoz sortu zuten elkartea eta urtean zehar hainbat ekintza egiten dituzte: kartelak jarri eskolan, Durangoko Liburu eta Disko Azokara joateko bidaia antolatu, *Aupa Etxebeste!* filma ikusteko irteera antolatu... Ligatzeko euskarazko hitzak saldu ere egiten dituzte, kartazal bakoitza 20 zentimotan.

Herri berean dago **San Jose ikastetxea** eta B ereduan ikasten dute bertako gazteak. Memento ez dute Euskara Elkaterik, baina ekintzak egiten dituzte: euskararen astea, ginkana...

Irungo Toki-alai ikastetxeko Euskara Elkartean DBH 3. eta 4. mailako 24 ikaslez gain, sei irakasle eta zuzendari-tza taldeko kide bat elkartzen dira. Iazko ekintzen balorazioa egin ondoren, ekintzak nahiko zaharkituta daudela konturatu dira eta berriak egiten hasi beharra ikusi dute.

Txingudi ikastolan ere asko biltzen dira Euskara Elkartean, 45 ikasle inguru. Euskolinpiadak antolatzen dituzte eta jende famatua gonbidatu ere bai. Horrez gain, ikastolako Txinparta irratian aritzen dira.

Pio Baroja institutuan, aldiz, aldizkari bat argitaratzen dute, urtean bi ale. Eskola orduetatik aritzen dira idazten. Euskara Elkartetik eduki ez arren, euskararen erabilera kezka sortu du gazteengan eta aldizkariak gain beste hainbat ekintza ere egiten dituzte urtean zehar. Irakasleak proposatzen dien literatura lehiaketetan ere parte hartzen dute.

La Salle ikastetxeko Euskara Elkartea sortu berria da eta oraindik gauza asko ez dituztela egin diote. Irakasleekin euskaraz hitz egiten omen dute, baina euren artean gaztelaniaz. Giro erdaldun horretan euskara gehiago erabiltzeko nahiak bildu ditu.

Gauza bera gertatzen zaie **Bidasoanlanbide eskolako** hiru ikasleri. Euskaldunak izanagatik eta euskaraz ikaslagatik ere, guztiz erdalduna da eskolako giroa. Hori ikusita bildu dira eta beste ikastetxetan egiten denaren berri jakiteko gogoz daude.

Denek helburu bera dute: euskararen erabilera indartzea. Ikastetxe guztiak daude Hizkuntza Normalkuntza Planean sartuta eta denetan dago Normalkuntza Batzordea eta Hizkuntza Normalkuntzarako Arduradun teknikaria. Irungo Berritzegunean elkartzen dira eta han sortu zen topaketak egiteko ideia. Inaki Biain Berritzeguneko Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariak dioenez, “urtero egin nahi ditugu topaketak. Agian bat ikasturte hasieran, elkar ezagutzeko, eta beste bat ikasturte amaieran, egindakoa baloratzeko”. Horrez gain, elkarren arteko harremanak bideratzeko blog bat jarriko dute martxan: www.blogari.net/Bagabiltza

Immigrazioa eta hizkuntza politika izan dira aztergai UEUk eta UEMAk antolatutako jardunaldietan

Udalerrri euskaldunetan immigrazioa eta hizkuntza politikak nolakoak diren aztertu nahi izan da jardunaldi hauetan.

Hasteko, Xabier Aierdi EHUko Soziologia Saileko irakasle eta Immigrazio Behatokiko zuzendariak zera aipatu du: lortu behar dena dela gizartearen eta aginte publikoen arteko kontsentsu integrala eta zehar leerrokoa, harrera gizarte bat izan gaitezen. Horretarako, kultur artekotasun guneak sortzea proposatu du, horrela identitate berri bat sortuko litzatekeelako.

Hezkuntza esparruari dagokionez, Felix Etxeberria EHUko Pedagogian katedradunak aipatu du etorkinek A eremuan matrikulatzeko joera dutela, eta hori aldatu egin behar dela, bestela eurentzat kaltegarria izango delako euskal gizartean eta lan munduan integratze aldera.

Inma Pagès Consorci per a la Normalisacio Lingüística erakundeak "Voluntariat lingüistic" programaren berri eman du, besteak beste. Programaren helburua da katalana harrerara hizkuntza gisa finkatzea eta oinarritzko mailetako ikasleek ikasketak indartzea.



Martxa honetan, haur etorkinek ez dute euskararik ikasiko



Aniztasunean, euskara eta immigrazioa hezkuntza sisteman izenburupean egin dira Kontseiluak antolatutako jardunaldiak Bilbon. Alde batetik, egungo errealitatea ezagutzeko balio izan dute, eta bestetik, Euskal Herrian erabilgarriak izan daitezkeen kanpoko hainbat esperientzien berri eman da adituen eskutik.

Mario Zapata soziologoak Euskal Herriko immigrazioa, hezkuntza sistema eta hizkuntza politika aztertu ditu, eta ondorio batera iritsi da: egungo sistemarekin haur etorkinek ez dutela euskara ikasiko eskoletan. Horrek ondorio kaltegarriak izango ditu haur horientzat etorkizunean, Zapataren ustez: "euskara modu naturalean ikasteko aukera galduko dute, eta horrez gain, zailtasun handiagoak izango dituzte lan munduan toki egokia lortzeko".

Hezkuntza sistemako hizkuntz erduei buruzko datuak bilatzerakoan, EAEkoak soilik bildu dituela aitortu du Zapatak, Nafarroan hizkuntzari lotutako daturik ez dagoelako eta Iparraldean haurren jatorriari buruzko datuak biltzeko zailtasunak daudelako. Beraz, EAEko datuei erreparatuta, haur etorkinak A eremuan matrikulatzeko joera dagoela ikusten da, horrek dakarren bazterketa arriskurarekin. Aukera hori hainbat arrazoigatik eginen dutela dio

soziologoak: gurasoek informazio nahikorik ez dutelako eta mito ugari daudelako ("haur gaixoak, nola behartuko ditugu beste hizkuntza bat ikastera", "ez dute gaztelania ongi ikasiko"). Hori gainditzeko, komunikazio estrategia sakon bat behar dela adierazi du.

Horrekin batera, kontuan izanik euskarak integratzeko tresna izan behar duela, hizkuntza politikak hainbat irizpide jarraitu beharko lituzte Zapataren iritziz: curriculum egokitu, hizkuntza indartzeko programak eskaini bai eskolan eta bai aisialdian, prestakuntza eta trebakuntza eskaini eta baliabideak sortu.

Era berean, haur hauek euskal gizartean integratzeko, garrantzitsutzat jotzen da euren jatorria errespetatzea, eta hori da Kontseiluak azpimarratu duen alderdietako bat. Xabier Mendi-guren Kontseiluko idazkari nagusiaren esanetan, "euskarak elementu komuna izan behar du, baina immigranteen errealitate linguistikoa kontuan izan behar dugu. Euskararekiko errekonozimendua eta errespetua eskatzen dugu, eta aldi berean, beren hizkuntzak eta kulturak aitortu eta errespetatu beharra daukagu. Horrek izan behar du immigranteen giza multzoa euskararen normalizazioaren alde aktiboki jartzeko oinarria".


argitalpenak



Euskal curriculumuma. Herritarren ekarpena

UDALBILTZA

2006ko urtarrilean Udalbiltzak jardunaldiak egin zituen Donostian euskal curriculumumaren harira herritarren ekarpena jasotzeko. Herri eragileek egindako diagnostikoa eta ekarpenak bildu dira, besteak beste. Eta horrekin batera, baita hainbat adituk curriculumuma aplikatzeko bidean proposatzen dituzten ildoak ere. •



Kilimak! Sexuen hezkuntza 8-10

Nerea Sancho
EREIN


Aniztasunaren eta generoaren ikuspegitik, norbere sexualitatea eta besteen ulertzeko eta onartzeko beharrezko edukiak biltzen ditu. Ariketa moduko aktibitateak proposatzen ditu giza harremanei eskainitako 45 ikasgaitan. Eskolan ez ezik, etxean lantzeko materiala da. Hezitzaileentzako gida batez lagundurik dator. •



Begira-begira

Askoren artean
ELKAR

Ipuinek, poemek, hizkuntz jolasek eta bestelako baliabideek badute tradizionaren usaina, baina arnas berrituta apaindu eta apailatu dituzte idazle hauek: Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Juan Kruz Igerabide, Jesus Mari Olaizola "Txiliku", Joxan Ormazabal, Kirmen Uribe, Mitxel Murua eta Miren Meabe. •



7BBB. Zazpi, buru bete zazpi

IKASTOLEN ELKARTEA

Marrakzi bizidunetako DVD honetan euskaraz olgetako kantuak eta kanpo jolasak biltzen dira. Hasteko, zazpi protagonistez osatutako bideoa ikus daiteke, eta bestetik, abestiak, karaokea eta kantuen azalpenak. Alde batek kanpo jolasetarako euskarazko kantuak erabiltzea du xede lan honek, eta bestetik, herri tradizioko kantuak erabiltzea kantu legez. •



Hizkuntzaren bihotzean: euskal onomatopeien hiztegia

Iraide Ibarretxe
GAIK

Liburu honetan, lehen aldiz, natura-ko ahotsak imitatzen saiatzen diren milaka euskal hitz biltzen dira. Onomatopeiak baditu erritmoa, doinua... eta ahozko tradizioko hizkuntzekin zerikusi handia du. Onomatopeien esanahia gaztelaniaz eta ingelesez adierazita dago eta tartean adibideak atxikita. •



Mainontzi mahai joko

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE
ELKARTEA ETA LANKU

Bertsolaritzaren ondarea gorde eta izaera ludiko eta didaktiko baten bitartez zabaltzea du helburu jokoak. 12 urtetik aurrerako edozein bertsozalek bere ezagutza neurtu ahal izango du Mainontzik eskaintzen dizkion 1.800 galderetan. Galderak sei arlotan banaturik daude: teoria, jardun, hizkuntza, gaur, historia eta saski naski. •

... goza nazazu gehiago

Korrika heldu da!



**Helena BARAIBAR eta
Kristina BOAN**

Gipuzkoako Euskaraz Bizi koordinatzaileak
Ikastolen Konfederazioa

Gaurko hau dugu gela barruko jardunari dagokion azken saiakera. Ikasle eta irakasleek gizartearekin harremanetan, gela barruan nahiz kanpoan egin dezaketenez arituko gara. Izan ere, gure munduko erreferentzia kulturalak gela barruko egunerokotasunean txertatzea ezinbestekoa baita euskarari erabilera funtzionala emateko, ikaskuntza helburu huts izatetik haratago. Korrika dugu gisa horretako lanketa bideratzeko aukera ezin hobea. Ekimen soziala da, eta gizaratean duen eraginaren aurrean, eskolak ezin daitezke gera mugimendu erraldoi horretan parte hartu gabe, gizaratearen isla ere izan behar baitute.

Hona beraz, irakasleak ikasleekin marro horretan egiten ahal duena. Hurrengo lerrootan, ikastetxeetan lantzeko prestatu den Unitate Didaktikoaren jardueraren azalpena:

Haur Hezkuntza

Adin horri dagokion proposamena, curricularretik gehiegi saihestu gabe, ikaslearen adimen gaitasunak, nortasun ezau-

garriak, gorputz ahalmenak eta gizarteratze eta harreman gaitasunak indartzera dator. Horrela, prozedura linguistikoetan trebatzeko ahalegina egiten jarraituko dugu gai nagusia korrika izanik. Alegia, ipuina kontsideratzen badugu besteak beste, adin tarte honetan hizkuntzaren trebakuntzarako baliabide aberatsen, hori bihurtu behar dugu Korrikako unitate didaktikoaren ardatz. Ipuina lantzeko baliatzen ditugun estrategiak dira gakoak jarduna emankorra suerta dakigun. Hots, ikasleak ezin ditu ipuinak era pasiboan entzun, taldeko antzerkiaren bitartez ipuina entzun hutsetik hura bizitzera ekarri behar dugu eta horrela, ulermenera eta elkarriketara bideratu gure lana.

Lehen Hezkuntza

Adinean gora goazen heinean, gure helburuak ez dira gehiegi aldatzen. Oraindik orain, pertsonaren gaitasun orokorren garapena lehenesten dugu. Ikaslea aktiboz izatea da gure eguneroko ekimenaren erronkarik nagusiena, eta horretarako etengabe motibazioa lantzeko kinadak egin behar dira. Adin tarte honetan motibazio jardueraren oinarritzako komikia bihurtu nahi dugu, horregatik, ipuinaren lehen lanketaren ondoren ikasleak komikia diseinatzera bideratuko ditugu interakzio egokia proposatuz. Alegia, ikasleak talde txikian elkarrekin hitz eginez eta argudiatuz komikia adostera iritsiko dira.

Bigarren Hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako ikasleen adin tartearen gure helburu nagusia euskal hiztun aktiboak eragitea bada, nerabearen **motibazio kontzientea** lantzerako joko dugu. Motibazio kontziente honen giltza, bateko **eza-**

gutzan datza eta besteko **hausnarketan** eta honen harira hartutako **konpromisoan**.

Honela, aurtengo Korrikak euskal emakumeak omentzea hartu duenez oinarri, etapa honetarako prestatu jardueretan muina **ama hizkuntzaren** kontzeptua lantzea izango da. Honekin batera hizkuntzaren transmisioan amaren figurak duen garrantzia, gurasoen egitekoa hizkuntzaren lekukoa pasatzen, seme-alabak euskara ikasteko bidean jartzen, hizkuntzarekiko atxikimendua itsastan, hizkuntzari balioa aitortzen, ... Maila kontzeptualeko ezagutza honetara iristeko baliatzea proposatzen den estrategia, berriz, berraitona-berramona-arengandik hasita, nor bere familiaren hizkuntz biografia arakatzea da. Bakoitzaren arbasoei buruzko datu bilketa eginik taldean aztertzea hizkuntzaren atzeraurrera pausoak, gizaratean zein garaitan eta zein faktorek eraginda eman diren, eta baita ikasle bakoitzaren familiar hizkuntzaren ibilbidea zein izan den ere. Proposatutako ondoko jarduerak nor bere hizkuntz biografia idaztea da. Jarduera honetan hausnartzeko eta konpromisoak hartzerako bultzatzeko aukera dago.

Eremu euskaldunetarako aproposagoa dirudien proposamen hau eremu erdaldunetan ere guztiz baliagarria izan daiteke. Izan ere, Pozalaguako estalaktikak hizkuntzaren sinbolotzat hartzen baditugu, eta euren okerdura eta bihurtuak euskararen biziberritzean elkarlanaren iruditza, gizaki bakoitza fenomeno geologiko horren osaketan milioika urtetan bildu diren urtanta horietako bat bailitzateke. Eta honela eremu erdaldunetan ere, ikaslea izango da bere ahaideen artean, lehen urtanta euskararen historia itxuratzen duen estalaktitan.

atzeko atetik



Zaldieroa
MARRAZKILARIA



Haurren gizentasunari aurre egiteko, AEBko West Virginia estatuko eskolan "dance dance revolution" bideo-jokoa erabiltzen dute Soin Hezkuntzako orduetan. Pantaila bati begira jarriz, oholtza moduko baten gainean egiten dute dantzan.

Iturria: USAToday



hezkuntza plazara!

urtarrilaren 13an Altsasun

Hezkuntza Plazara! Helburu horrekin jaio zen Euskal Herriak Bere Eskola izena hartu zuen herri ekimena; Euskal Herriaren hezkuntza aldarrikapena plazaratzeko eta hezkuntza komunitate osoa elkar harturik plaza dantzan jartzeko bokazioarekin, hain zuzen ere. Sorrera garaitik ia 5 urte igaro diren honetan plaza zein izan behar den irudikatu dugu eta jadanik plaza dantzan jartzeko abestia aukeratu dugu. Hala ere, oraindik egiteko asko dugu Euskal Herriak behar, nahi eta eraikitzen ari den Hezkuntza Sistema Nazionala erdiesteko bidean.

Orain dela 5 urte sorturiko herri ekimenak izandako bilakaeraren inguruko gogoeta egin eta erronka berriak mahaigaineratzeko baliatu nahi izan ditugu III. Nazio Mintegiak. Horretarako, azken 3 hilabeteetan zehar herriz herri eta eskolaz eskola eztabaida ezberdinak burutu ditugu. Era horretan jaso ditugu hezkuntza mugimenduak ezinbestekoak dituen hezkuntza komunitate nahiz herritarren ekarpen, kezka eta iritziak.

Zugana jotzen dugu, lagun, III. Nazio Mintegiei amaiera eman eta aldaketak adosteko egingo dugun Nazio Batzarraren egitaraua zein den iragarri eta egun horretan, zurekin batera hezkuntza Plazara ekar dezagun.

Urtarrilaren 13an, Altsasun egitarau zabala

9:00-9:30

**Harrera eta material
banaketa.**

9:30-10:00

Sarrera

10:00-11:00

**Eztabaidarako
Tailerrak**

- . Pedagogia
- . Hezkidetzatza
- . Etorkinak
- . Herritartasuna
- . Bologna prozesua

11:00-11:30

**Eztabaida tailerren
ondorioak**

11:30-12:30

**Plenariaa. Egondako
ekarpen eta
ponentzien onspena**

12:30 - 13

Atsedena

13:00 - 14:00

Ekitaldia

14:00 - 14:30

Kalejira

14:30

Bertso bazkaria

17:30

Haurrentzako saioa

*Goiz guztian zehar haurtzaindegi zerbitzua

*Tailerretan izena emateko, bidali zure izena eta abizenak, nondik zatozen (banakoa, eragileren batetik), helbide elektronikoa eta telefono zenbakia ehbe@euskaleskola.org helbidera.

Era berean www.euskaleskola.org orrian harremanetarako atalean sartuz bidali ahal izango dizkiguzu zure datuak.



berria



ostirala
ekainaren 6
1€
www.berria.es

BALEAREN ARRANTZA, ONESTEKOTAN
Esporri abiltzara, eta dicit leganditu hantzet heralde (E) Grahingia aurkezteko

Iruña-Veleian aurkitutako euskarazko hitzak III. eta VI. mendeen artekoak dira

■ Ebe baten zimentatzen topatu dituzten idazkuntan eguneroko bitartean erabiltzen ziren berberak eta kutsu erretzekoak ageri dira
■ Idazkuntza zaharretan dago, baina orain arteko zaharretan baina 100 urte lehenagoak irabazteko pentsatu dute. **14**



14/11/14

«Esquerra dheritu egin da eta ez du jakin errealtatea ulertzen»
■ **14/11/14**

Edoardo Zubizarreta izendatu dute Iñaki Gurrutxakoa patronaleko presidentea

14/11/14

Antzerkian 14/11/14ko prestatutako antzerkian 14/11/14ko prestatutako antzerkian

Asesinada la periodista que denunciaba los abusos de Putin

■ En pistolero mató a Anna Politkovskaya en el ascensor de su casa en el sur de Moscú
■ Momento tras presionar una botella con la política del Kremlin en Chechenia y medio en la crisis de la escuela de Beslan

Anna Politkovskaya

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

Los jueces sustitutos de Gupuzkoa estudian demandar al Ministerio

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

18 500 personnes avec Batera pour un référendum sur le département

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

La Maison des

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

14/11/14

Fernando Alonso, a un salto del título de campeón del mundo

14/11/14

14/11/14

14/11/14

El Gobierno se planteó en Armada para parar los

14/11/14

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz

berria